# ttipi-ttapa

2014ko urtarrilaren 9a | XXXIV. urtea | **605**. zenbakia

www.ttipi.net




**Luis GARDE**

Bi liburu argitaratu berri ditu ➔ 18


**Kirola** 2013ko errepasoa ➔ 36-37

**BERA ➔ 11** Santa Barbarara Igoera urtarrilaren 12an

**ELGORRIAGA ➔ 19** Inauteriak ospatuko dituzte urtarrilaren 17an eta 18an

**ARESO ➔ 25** Burdin Aroko ontzi baten arrastoak aurkitu dituzte

**BAZTAN ➔ 29** Minbiziari buruzko laguntza taldea sortu da


## Oihangintzaren egoeraz



**Jesús GARITACELAYA** | Oihangintzako Ingeniaria

«Sektoreari bultzada emateko 'formula berriak' bilatu behar dira, espezieak, kudeaketa formak… Horiek kontuan hartuz badira alternatibak. Baina nagusiena sektorea gehiegizko erregulazio eta diru laguntzekiko duen menpekotasunetik libratu behar dela da»

ARGAZKIA: MARI JOSE BARRIOLA

# Zaintzaren eta produkzioaren arteko oreka bilatu beharra

«Krisiarekin salmentak eta batez ere diru laguntzak murriztu direlako kexu dira aunitz –dio Jesús Garitacelayak–, baina mendiak krisiari aurre egiteko ez zeudela prestatuak ikustea da kezkagarriena. Urteetan, mendiak zaintzeko eta gozatzeko lorategitzat hartu izan ditugu, horrek dakarren gastu ekonomikoa aintzat hartu gabe. Araudiak eta azterketak egin dira, baina lehengo belaunaldien gaitasun produktiboa galduz joan gara. Orain konturatu gara ez dugula zaintzearen eta produkzioaren arteko oreka gordetzen jakin».

ERREPORTAJEA ➔ 4-5

ELKARRIZKETA ➔ 3

### 'Dementziaren bat duten gaixoak etxean nola zaindu'

Horixe da **Aintzane Mariezkurrena**k ematen dituen hitzaldien izenburua.

ZOZKETAK ➔ 2



**Txoootx!** Ortziralean, urtarrilak 10, Lesakako Linddurrenbordan aurkeztuko dute Nafarroako sagardotegiek denboraldi berria. Jendearentzat, ordea, ilbeltzaren 17an irekiko dituzte ateak.



**100 urte** bete ditu

Omenaldia egin diote Beran, **Lucia Larrañetari**

**OSPAKIZUNAK**

### San Anton Eguna Elizondon

Egitarauaren barne, urtarrilaren 17an Zahar Etxearen alde zozketa eginen dute.




Txartela egiteko deitu **948 63 54 58**ra


ttipi txartela
ttipi txartelarekin beti irabazten da !
DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK
-%25eko DESGRABAZIOA ERRENTA AITORPENEAN
eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea 7, 31770 LESAKA
www.ttipi.net
zozketak
604. ALEKO IRABAZLEAK
1- SASKI BAT
Enara MITXELTORENA | Elizondo
2- SASKI BAT
Genevieve ALDAZABAL | Bera
deskontuak
SANSIÑENA TAILERRA
ELIZONDO | %5 olio aldaketetan
Ostargi optika
BERA
nafarpress
ELIZONDO
%10 liburu eta ikas materialetan, testu liburuak eta bideoak izan ezik
ELBETEko POSADA
ELBETE
%10, kartan, 30€tik gorako gastuan
bixklak
KIROL ETA MODAKO arropa denda
LESAKA | %10eko deskontua
BERA
Kopietan, enkuadernazioetan eta inprentako zenbait lanetan, 5€tik gorako gastuan %5eko deskontua
KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com
1
KORRONTZI CDa
www.baga-biga.com
2
TXANTARIAK DVDa
Urtxintxa eskola
www.aisia.net
3
2 SARRERA
Zugarramurdiko Sorginen leizeak
www.turismozugarramurdi.com
SORGINEN LEZEA
SARRERA
2 LIBURU
Erein argitaletxea
www.erein.com
5
2 SARRERA
Donostiako Aquariuma
www.aquariumss.com
6
AQVARIVM

'Dementziaren bat duten gaixoak etxean nola zaindu' izenburupean hitzaldiak eskaintzen ditu Beintza-Labaienen bizi den erizainak. Bi ikuspegiak, adituarena eta zaintzailearena ditu oinarri; 15 urte daramatza osasun mentaleko sailean lanean eta dementzia duen aitaren zaintzaz ere arduratzen da. Gaixotasuna ezagutzea funtsezkoa dela dio «zein bidetatik jo behar den jakiteak beti pisua kentzen diolako zaintzaileari». Zaintzaileen galderei erantzun eta baliabideak eskaintzen dizkie bidea errazteko asmoz.

**Aintzane MARIEZKURRENA** | Erizaina, psikologoa eta AFANeko kidea

# «Garrantzitsua da gaixotasunari buruz ahalik eta gehien jakitea»

E. IRAOLA |

**Nolatan hasi zinen hitzaldiak ematen?**
AFANeko kidea naiz eta beraiek eskaini zidaten hitzaldiak emateko aukera. Etxean gaixo baten zaintzaz arduratzen diren pertsonei zuzendutako saioak dira eta egunerokoan bizi duten egoera horri aurre egiteko bitartekoak ematea da asmoa. Gehienbat dementzia kasuetan zentratzen gara. Gaixotasun hau zer den azaldu, dituen sintomak ezagutu, prebentzio neurriak ikasi… Garrantzitsua da gaixotasunari buruz ahalik eta gehien jakitea, zaintzaileak lasaiago egingo dielako aurre egunerokoan sortu litezkeen egoerei. Hala, bi alderdiek irabazten dute, gaixoa ere hobeto zaindua egongo delako.

**Nori zuzenduta daude hitzaldiak?**
Gaian interesa duen edonori. Egia da estatistika bat eginez gero, zaintzaile profesional gehiagok partu hartu izan dutela ikusiko genukeela. Hala ere horrek ez du esan nahi, zaintzaz arduratzen den gehiengoa profesionala denik. Aurkakoa da errealitatea baina, hitzaldietara ahal duena joaten da. Gainera krisiaren eraginez, zaintza espezializatuak beherantz egin eta honen ordez, etxean egiten den zaintza gorantz doa.



UTZITAKO ARGAZKIA
Eskualdean barna zaintzaren inguruko hitzaldiak eskaini ditu AFAN-en eskutik.

**Zer azpimarratzen duzue hitzaldietan?**
Gehienbat gaixotasun honek eragiten dituen sintometan sakontzen saiatzen naiz. Gaixotasunak jarrera aldaketa handiak eragiten dizkiete menpeko pertsonei, muturreko egoera batetik bestera pasa litezke istantean: batzuetan portaera agresiboak dituzte, besteetan urduri daude, ez dute lorik egiten edo ekintza bat behin eta berriz errepikatzen dute… zaintzaile profesionalentzat ere ez da egoera xamurra izaten, baina zaintzailea senideren bat denean soka estutu egiten da, ez dagoelako distantzia emozionalik. Kasu hauetan batzuei kosta egiten zaie ulertzea, beren aita edo amak, aiton-amonak jokatzen duten moduan jokatzen dutela gaixorik daudelako.

**GAI AUKERAKETA**

«Zaintzaile profesionalentzat ere ez da egoera xamurra izaten, baina zaintzailea senideren bat denean soka estutu egiten da ez dagoelako distantzia emozionalik. Kasu hauetan batzuei kosta egiten zaie ulertzea, beren aita edo amak, aiton edo amonak jokatzen duten moduan jokatzen dutela gaixorik daudelako».

**Galera fisikoa nabarmenagoa izaten da...**
Autonomia galtzen joaten dira pixkanaka eta laguntza behar dute eguneroko zereginetarako. Horregatik, nutrizioa, garbiketa, ultzeren prebentzioa... ongi egiteko aholkuak ere ematen dizkiegu. Saio dinamikoak egiten saiatzen gara esandakoa praktikatuz. Eta eskariei aurre hartzen jakiten ikastea ere baliagarria izaten da kasu hauetan.

**AHOLKUAK**

- **Gaixotasuna ezagutu:** nola jokatu jakiteak estres egoerak gutxitu, zaintza hobea eman eta eskariei aurre hartzea ahalbidetzen du.
- **Hurbilean heldulekua bat topatu**, indarra eta babesa emanen dizun norbaitengana edo elkarteren batetara jo.
- Hitz egiteko beharra baduzu, **ez gorde barrenean**.

**Pisu emozional handia du zaintzak...**
Gaixoa etxean zaintzeko erabakia hartzen denean kontuan hartu beharreko puntuak daude. Zaintzaz arduratzen dena kateaturik gelditu liteke, bakarrik gelditzeko arriskua ere badu. Iritsi liteke laguntza eskatzen ez duen puntu batetara, hogeita lau orduz gaixoarekin eta gaixoarentzat bizitzera igaro. Zaintzaile profesionala ez den kasuetan, normalean pertsona baten gain egoten da zaintzaren ardura nagusia, eta honek ez du ia atsedenik hartzen. Hori ekiditeko familian bertan, inguruan edota elkarteetan helduleku bat izatea beharrezkoa da. Hitzaldi hauetan berez, ez gara arlo emozionalean zentratzen baina, beti irekitzen diot atea arlo horri, jendearen galdera edo keinuetan nabari duzulako behar dutela.

**Zein aholku emango zenieke zaintzaileei?**
Aurrean duten gaixotasuna ezagutzeko, zein bidetatik jo behar den jakiteak pisua kenduko dielako. Egoera gogorra izan arren, trukean ere asko jasoko dutela eta zerbait esateko beharra badute esan dezatela, barrua askatzeak mesede egiten digulako denoi.



ARGAZKIA: MARI JOSE BARRIOLA

Azken urte hauetan, dezente egin du beheiti oihanaren salmentak.

GIZARTEA ➜ EGURRAREN SEKTOREA

# Oihanak saldu ezinik, urteetan diru iturri nagusia izan dutena galdu dute udalek

## 90. hamarkadan oraingo prezioaren bikoitzean edo gehiagoan saltzen zen metro kubikoa

**Egurraren salmentarekin urteetan diru sartze politak egin dituzte udalek. Garairik oparoenean, metro kubikoa 60 euro edo gehiagoan saltzera ailegatu ziren. Gaur egun, ordea, ez dago eroslerik eta saltzen duten apurra duela 20 urteko prezioaren erdiaren azpitik egiten da.**

G. PIKABEA

Mendietako zuhaitzak zutik. Halaxe daude aspaldian, mugimendu haundirik gabe. Mendeetan udalen diru iturri nagusiak izan dira oihanak eta egurraren produkzioak balio haundiko industria sortu izan du. Baina garaiak aldatu egin da. Gaur egun, gero eta guttiago saltzen da, eta aldiz, oihanak berdin zaintzen dira eta diru laguntzak ere nabarmen murriztu dira. Hori aski ez, eta fusarium onddoak ez ditu bakean utzi intsinis pinuak. Pinu hau bereziki sentikorra da fusariumarekiko eta Nafarroako Gobernuak honen aitzinean egurraren mugimendua kontrolatzeko neurriak hartu ditu hemendik kanpora saltzeko mugak paratuz, eta intsinisa landatzeko laguntzak ere kendu ditu.

Jesus Garitacelaya ingurumenarekin lotutako aholkularitza teknikoa eskaintzen duen Basartea enpresako kidea da, eta krisiak gure mendietan izan duen eraginaz aritu zaigu: «krisiarekin salmentak eta batez ere diru laguntzak murriztu direlako kexu dira aunitz, baina mendiak krisiari aurre egiteko ez zeudela prestatuak ikustea da kezkagarriena. Urteetan, mendiak zaintzeko eta gozatzeko lorategitzat hartu izan ditugu, horrek dakarren gastu ekonomikoa aintzat hartu gabe. Araudiak eta azterketak egin dira, baina antzinako belaunaldien gaitasun produktiboa galduz joan gara. Orain konturatu gara ez dugula zaintzearen eta produkzioaren arteko oreka gordetzen jakin. Ezin ditugu, garai batean egiten zuten bezala, mendiak ekonomikoki une zailei aurre egiteko aprobetxatu, eta gainera, ez dugu 'lorategi' horiek mantentzeko dirurik». Bere hitzetan, «mendiek duela 20 urtetik honat diru iturri garrantzitsu izateari utzi diote. Oraindik ere produktu eta zerbitzu garrantzitsuak eskaintzen dituzte, baina jabeei sortzen dizkieten irabaziak eta mantentzen dituzten lanpostuak batez ere subentzio eta laguntza publikoetan oinarritzen dira».

Sektoreari bultzada emateko «formula berriak» bilatu behar direla dio: «espezieak, kudeaketa formak... horiek kontuan hartuz badira alternatibak, baina nagusiena sektorea gehiegizko erregulazio eta diru laguntzekiko duen menpekotasunetik libratu behar dela da. Herri eta jabe bakoitzak arazo desberdina du, eta mendiak kudeatzeko autonomia lokal eta pertsonal haundiagoa izatea garrantzitsua izanen litzateke». Oinarrizko ingurumen-baloreak ez galtzeko «marra gorri batzuk paratzea aski izanen litzatekeela» uste du, eta «batzuek oihanaren kudeaketak nolakoa izan behar duen zehazteko eta gainerakoei inposatzeko gai direnaren ideia baztertu beharko genukeela.». Bere irudiko, «jabe eta tokiaren arabera egoera mota desberdinak izanda, kudeatzeko moduan dibertsitate haundia egonen litzateke eta denborak erakutsiko luke zeinek aurkitu dituen ekonomia eta ekologiaren arteko orekan soluziorik onenak».

## EGURRAREN SEKTOREAZ HERRIETAKO UDAL ORDEZKARIEKIN SOLASEAN

**Miguel Mari IRIGOIEN** | ETXALAR

### «Subentziorik gabe menditik ateratzen den dirua mantentze-gastuetan joanen da»



Urteetan menditik sos dezente irabazitakoa da Etxalarko herria. Miguel Mari Irigoien alkateak azaldu digunez, «1990etik 2012rako tartean 1.000.772 euro atera ziren. 90. hamarkadan, pinuaren metro kubikoa 11.000 pezetetan (66 euro) saltzen zen eta joan den udaberrian, metro kubikoa 32-33 eurotan saldu genuen». Halere, orain ere «garestien» intsinis pinua saltzen omen da: «duela 25 bat urte haritz amerikar aunitz landatu genuen, baina ez du aterabide onik». Diru laguntzak kendu dituztela eta, zera aipatu digu: «orain arte mendietatik ateratako dirua baserrietako bideak moldatzeko edo bertze partidetarako erabili izan da. Hemendik aitzinera, landatzen segitu behar bada, entresakak egin, bideak moldatu... Irabazten den dirua mantentze-gastuetan joanen da». Sektoreari laguntzeko Nafarroako Gobernuak «ez duela deus egiten» uste du, eta fusarium gaitzarekin, Gobernuak «jarrerarik murriztaileena» hartua duela dio: «Gipuzkoa eta Nafarroako landareek elkar ukitzen dute, eta hangoek egurra nahi duten tokira eraman dezakete eta guk inora ere ez». Egoeraren aitzinean, egur laminatuei jarria die begia: «lehen dena egur mazizoa erabiltzen zen eta arraildurak agertzen ziren. Orain laminatuak egiten dira eta hori izan daiteke irtenbidea».

**Jon ELIZETXE** | BAZTAN

### «Etekin ekonomikoaz gain, mendiak bertze aprobetxamendu batzuk ere baditu»



Baztanen azkeneko urteetan egurraren sektoreak ez duela «gorabehera haundirik» izan erran digu Jon Elizetxe zinegotziak. Are gehiago, «mantendu edo goiti egin» dela gaineratu du: «gaur egun saltzen dena egurretarako da, enbor-ttikia deitua, eta horrek gero eta eskaera haundiagoa du. Duela urte batzuk, sektorea nahiko geldirik egon zen, baina biomasaren aferarekin eta jendea berriz egurra kontsumitzen hasi delako, mugimendua nabari da. Egur aunitz dugunendako hori ona da». 2012an 25.000 euro atera zituen Baztango Udalak menditik, eta Kintoko Mankomunitateko kide izanda, berriki Kintoan saldutako loteekin ere irabaziak izan dituzte. 2014rako, berriz, 100.000 eurotik goiti ateratzea espero dute. Baina Nafarroako Gobernuak mendiko lanetarako diru laguntzak kendu dituenez, «gastuak ere goiti» eginen duela gogoratu du Elizetxek. Beretako hori ez da bidea: «mendietako azpiegiturak gure kontu garatu beharko ditugu. Gobernuak apustua biomasa dela dio, baina laguntzak kentzen baditu mendiak kasik defizitarioak izanen dira». Dena den, etekin ekonomikoaz gain, mendiak «aukera aunitz» badituela nabarmendu du. Batetik, «beren balio ekologikoa edo naturala» aipatu du, eta bertzetik, «balio ludiko-soziala, hau da, aisialdirako, turismoa erakartzeko...».

**Josu NARBARTE** | GOIZUETA

### «Orain arte zorrik gabe moldatu gara baina hemendik 8-10 urtera dena beltza ikusten dut»



«Hemendik 8-10 urtera oso beltza ikusten dut dena». Horixe aitortu digu Josu Narbarte zinegotziak. Izan ere, urteetan milioi asko bildu izan ditu herriak menditik, udal aurrekontuaren %80 izateraino. Baina fusarium gaitzak gogor jo zuen Goizueta. Narbartek azaldu digunez, «1975etik 2005era oso urte onak izan dira, baina fusariumak min haundia egin digu eta Goizueta eta Arano koarentenan egon dira. 1997-1998an landatutako pinu ia guztiak ihartu dira eta ez dute deusetarako balio. Leku askotan, 8-10 urteko pinu horiek moztu eta dena garbitu behar izan da». Intsinis pinua alde batera utzita, bestelako landaketak egiten ari dira: kriptomeria, aletze japoniarra eta «hemen ezagutzen ez ziren landare mordoxka». Horrek nolako emaitza izanen duen, ordea, ikusteke dago: «ez dakigu zer emanen duten». Gainera, emaitzak ikusteko gehiago itxaron beharko da: «intsinis pinuak landatu eta 30 urtera ematen zuen dirua, baina orain landatzen ari garenak hostozabalak dira eta 50-60 urtera luzatuko da». Beraz, panorama ederki aldatu zaio Goizuetari. Saltzen ari direla dio, baina «1995ean balio zuenaren erdia edo herena balio du orain pinuak». Hala, etorkizuna «oso beltza» ikusten omen du: «orain arte zorrik gabe moldatu gara, baina hemendik aurrera ikusiko da».

**Patxiku MITXELENA** | ZUBIETA

### «Mendien etorkizuna nahiko tristea ikusten dut. Gastuak ezin dira estali»



«Sei urte izanen dira Zubietako Herriko Etxeak ez duela mendirik saldu. Eta orduan ere gauza gutxi». Patxiku Mitxelena alkateak halaxe kontatu ditu. Haritz amerikarra saldu zuten orduan, metro kubikoa 24-25 eurotan. Baina Patxikuk garai hobeak izan direla gogoan du, orain dela urte batzuk 55-60 eurotan saltzen baitzuten metro kubikoa. Gaur egun, egur lotetarako «bakarrik» ateratzen dute egurra Zubietan. Hala ere, alkateak onartu digunez, «aspaldiko urteetan menditik ez dugu diru askorik hartu, baina ez dugulako saltzeko materialik ere». Pagoa eta haritza dira Zubietako lurretan nagusi, eta Europatik ailegatutako azken diru laguntzekin ere haritza eta pagoa landatu dituzte, baita urkia, lizarra... ere. Landaketa berri horiek «urte batzuetako gastua» eraginen diela dio Patxikuk, «garbiketak eta gauzak egin beharko direlako, eta hortik dirurik hartzerik ez dagoelako». Mendien etorkizuna «nahiko tristea» ikusten du: «materialak ez du ematen, eta horiek denak atera eta garraiatzea dirua gostatzen da. Gastuak ezin dira estali». Administrazioaren jarrerarekin ere kritiko solastu zaigu: «hitz ederrak esaten dituzte, baina ez dute sekula betetzen esandakoa. Batzuetan itxaropena ematen dute, eta gero bestelakoa egin».



Nire txanda
Fernando ANBUSTEGI

# 2014. azkena

Hasi dugu urte berria. Pasa dira eguberriak. Ederki jan eta edan dugu, aunitzek bederen. Olentzero ere etorri zen gurera eta opariak, gehiago edo guttiago, utzi zizkigun. Olentzerok, hala ere, ez dizkigu falta ditugunak ekarri. Hori ez da bere lana, Olentzerok ekar ez ditzakeenak guk ekarri behar ditugu, eta urte berrirako asmo berrien artean asmo zaharrak berri izan beharko ditugu. Ea aurten azken aldia den. Ea 2014a mugarri urtea den eta lehenagotik ere aipatu izan dudan gai hau azken aldiz aipatzen dudan, beharrik ez dagoelako, Olentzerok ekarri ez dituenak guk ekarri ditugulako. Olentzerok urte guzian ikatza egiten duen bezala, guk ere lan haundia dugu egiteko. Lehenbizikoa, tanta bilakatu. Tanta garden eta eraginkor bilakatu, itsaso zabal bat osatzeko. Azken finean, tanta uholdea zorionezko kanta uholdea bilaka dadin.

> «Tanta garden eta eraginkor bilakatu, itsaso zabal bat osatzeko. Azken finean, tanta uholdea zorionezko kanta uholdea bilaka dadin»

Ezpala
Aitor AROTZENA

# Ahozko ingelesean maila altua

Ingelesean ez dugula mailarik aditu dut aunitzetan: Gezurra eta zikina! Auzoko bestetan hamaiketakoaren ordez *lunch*-a ematen dute eta arratsaldean lasterka egitera atera beharrean *running* egitera goaz, igande goizeko mendibuelta *trekking* bilakatu zaigu eta bizikleta estatikoan izerditzeari *spinning* erraten diogu. Ahozko erabileran bikain gabiltza, beraz, dongu horri bi japi. OK?

## Nabarmentzekoak



**Lucia LARRAÑETA**
Ehun urte bete ditu Beran

Orbaitzetan sortu zen 1913ko abenduaren 9an eta mendeurrena ospatu zuen Berako San Jose Zahar Etxean. Beran bizi da 1961etik. Seme eta alaba bat, 5 biloba eta 2 birbiloba ditu.



**Enrique TABERNA**
Zilarrezko Titarea Donezteben

Etxeko istripu baten ondorioz elizara agertzerik izan ez bazuen ere, Doneztebeko Udalak Santa Luzia egunez emandako Zilarrezko Titarea 85 urteko jostunarentzat izan zen.



**Aimar OLAIZOLA**
Zazpigarrena lau terdian

Zazpi final jokatu eta zazpiak irabazi ditu lau terdiaren barrenean goizuetarrak. Buruz buru kantxa osoan irabazitako lauekin eta binakako biekin bilduma ederra osatua du jada.

**Atzera begira ➜ 2004.01.08** / TTIPI-TTAPA 365 zk.



## Luis Garde idazlearen lehen olerki liburua euskaraz

Berriki bi olerki liburu argitaratu ditu Luis Gardek, baina duela hamar urte euskarazko bere lehen lan mardula argiaratu zuen, 'Oihan nabarra', Euskaltzaindiak eta BBKk ematen duten Felipe Arrese Beitia olerki saria irabazi ondotik. «Euskaldunberria izanik, niretzat erronka izan da euskaraz idaztea» zioen Iruñean sortu baina hiru urte terdi Donezteben bizitzen zeramatzan idazleak. «Literatura negozioa da eta argitaletxeek, logikoa denez, jendeak erosten duena publikatzen dute, liburuak saltzeko egiten dituzte. Jendeak olerki gutti irakurtzen du, eta euskaraz oraindik guttiago, beraz…» zioen.

ttipi-ttapa

**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • **info@ttipi.net**

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

**2013ko harpidetza sariak**

| | | |
|---|---|---|
| Hego Euskal Herria ............40€ | Europa ..................59,50€ | Baztan, Urdazubi eta Malerreka ................34€ |
| Ipar Euskal Herria ..........59,50€ | Amerika eta Australia ..........124€ | Leitza .......................................17€ |

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

# Hazkuntza, hezkuntza, hizkuntza… eta ardura

Joxe ITURZAETA

Gaur ETB1ko *Debatea* topatu dut telebistan. Gaia ikusita, hartan gelditu naiz, izan ere ni... aitortu beharra dut... ni... bai, ni D ereduko irakaslea naiz!! Sshh...
Partehartzaile bat, UPNko ordezkaria, bere burua holaxe definitu duena: "UPNkoa, baztandarra, lau umeen ama, D eredua ongi ezagutzen duena eta agintari publikoa".
- *To! Hok "agintariak" tuk ta ez "zerbitzariak"! Hola bai ulertuko tuk kontuek, ezta?*
Barka nazazue. Nere buru barnean izaki ttiki bat bizi da. Psikologoak *kontzientzia* dela erran zidan, ez dela arriskutsua. Tarteka, solastu egiten dugu. Berak galdegin dit. Baietz erantzun diot.
Kazetariak ("K", izanen da) gaia aurkezten du: guardia zibilak D ereduko irakasleak ikertu ditu, ETAk ikasleak adoktrinatzen dituelakoan. -*Txostenak dionez, irakaslegoaren %25ak ETArekin loturaren bat du.*
- B (UPNko ordezkaria): *Ta neri ze gaur egun interpretaziotik aparte, inporta zaizkit datuak, egiek diren edo ez diren egiek, zeren eta gero, dato hoietaik, eta gaur egun inork ere ez du erran oraindik hori egia ez dela, neri ze inporta zaiten edo ez, pentsatzen dut edozein, zuk erran duzu ama zarela, ni naiz ama eta, gainera, agintari publiko bat, eta hezkuntza da gauza bat delikatua. Zertaz, umeak hezten direlako, hezten dire etxean eta baita ere sistema hezkuntzako sisteman, ta, ez dire pertsona helduak, eeh, ta garrantzi haundie badauke, zeren, bueno, ikusten zaiote matematika geografian ta baita ere beste balore integral batzuten. Ta, dudarik gabe, ez naiz ari solasean ari bakarrik politikaz, eeh, beste balore batzuk badaude nik uste aise, eeh, hori bainio zabalagoak eta garrantzitsuak.*
- *Wath?* -nere kontzientziak. –¿?-nik.
- K: *Ideologizazio hori beste ereduetan ematen da, "B"?*
- B: *Eramaten ahal da ideologizazioa, politikari buruz edo beste gai batzuk, beste balore batzuk buruz ere ematen ahal da edozein (…) gaurko garaian erten da umeak ahal bezain goizik guarderire, familiatik kanpo lana ere egiten dugulakoz eta nik beti defendatu dut umeak, obligazioa ta debozioa erebai, badauzkegu aurrera atratzeko, baino baita ere nik nahi dut hezi nere umeak nere baloretan eta seguru asko ere ez dire ez hobeak ez txarragokoak izanen beste batzuenak baino bai dire nereak eta responsabilidade haundiena, eta dudarik gabe ideologia sartzen ahal da eskoletan, kuadrilletan, elizako koruan edo aunitz tokietan…*
- *Erran nahi dik berak, bere baloreetan bada, hezkuntzaren ideologizazioa onartzen duela?*-kontzientziak.
- *Ez diet argi. "Guarderien" galdu nauk* –erantzuten diot.
-L (EHUko irakasle batek), "B"ri: *Hori kontrolatzeko guardia zibila da egokiena? Erantzun mesedez... (...)*
*-B: Neretako guardia zibilaren txostenak jarri ditu datu batzuk, nik ez diot ez balore gehiago eta ez balore gutiago, txostenaren aurretik. Erraten datzut garbi aski eta armatu den zarata, ez dut erran behar barre ematen datela, baino, hortxe, hortxe. Porque han bizi naiz, ezagutzen dut D eredua, bere gauz onekin ta bere gauz txarrakin, eta beste modelo batzuk badituzte bere gauz onak eta bere gauz txarrak...*
- *Entzun al diok? Ta ez duk ja inen? Barre? Honek bai "barre pa casa"!* –oihuka kontzientzia.
Aitortzen ez badiot ere, "B"ren barreak mindu egin nau. Akaso ni edo ingurukoren bat izanen gara ikertutako D ereduko irakasleak. (…) Biluzik sentitzen dut nere burua. Behar bada, "B"ri espioi jokoa bizigarria iduritzen zaio. Akaso objetiboaren bertze aldean balego.
- PS: (PSOEkoa): *Beste guztiok ados gaude, guardia zibilak hori ezin duela egin. Ez dira soziologoak, ez dira inspektoreak, eta hori aztertu behar da nork agindu duen eta nork duen erantzunkizuna…*
-B: *Nik ez dakit guardia zibilak hor… nik ez dakit zertaz egin den publiko eta hori da eeh ez dutena ulertzen.*
-L: *Bainan sekreton egitea, okerrago da, nik uste dut…*
-B: *Es que, azkenean dire datoak... bi ta bi, lau, lau ta bi, sei, sei ta bi, zortzi. Ta orain daude, hantxe, kajoi batean, eta ez baldin bada publiko egiten, hemen ez da txostenik, ados gaude edo ez gaude ados. Ta D eredua segitzen du herenegu bezal bezala, zagonakin.*
- *Eta? Ya está? Bi ta bi lau dira? Beste bi sei dira? Kantari hasi zaigu? Hoiek al dire datoak?* –kontzientziak.
- *Hago, hago, oraintxe botako dituk...*
- *Bota? Ni bai hasiko nauk botaka... Ez al duk aitu? Pekatua ez duk ikertzea, baizik eta hoi zagutzea!*
Debatean ideia hau atera da: Nafarroako gobernuak vascuencearen legea bultzatu eta eskuara diskriminatu egiten du. Honen harira, "M" irakasleak galdera hau egiten dio "B"ri:
-M: *Zergatik egiten da manipulazioa esaten dena euskararekin?*
-B: *Zergatik? Bueno, pues partidu nazionalistak erabiltzen dute beste fin politiko batendako. Zein de fin politikoa eta zein da Nafarroako errealidadea. España mailan, Nafarroa da komunitate bakar bakarra, beti, mehatxuen dago desagertzeko. Zertaz? Pues, zenbait partido, nahi dutelakoz, elkartu Euzkadikin. Euskal Herria politiko bat egin. Bale, ta zenbait nafarrak nahi dugu Nafarroa kontserbatu halala eta eraso hortan erabili…*
- *Ongi aitu diet? Gobernuak abertzaletasunari aurre egiteko eskuara erabiltzen duela... Hoi erran dik, ez?*
- *Hala ulertu diet…*-erantzuten diot kontzientziari, *harrituta.*
-K: *Nafarroan admnistrazioak bermatzen du euskaraz ikasteko aukera?*
Sortzen guraso elkarteko ordezkariak (SOR) erantzuten du:
-SOR: *Ez. Bestela, aztertu zenbat familiek egunero zonalde ez euskaldunean eta zonalde mixtoan bizi direnak, Nafarroan, zenbat kilometro egiten dituzten euskaraz ikasi ahal izateko. Egunero, milaka km egiten dira, umeak bueltaka,eta esaten dugu eskubidea bermatzen dela. Ez da egia.*
-PS: *Zenbat famili dira Nafarroan eskubidea ez dutenak?*
-B: *Bi gauza. Eskubideak zer dire? Gure nahiaren araberara edo legearen araberara? Lehenbiziko gauza. Eta edozein gise, nahi dut gauza bat ere erran. Eskualdun batek Erriberan erdaldun batek Baztanen, badauzke erdaraz ikasteko, eskualdun batek Riberan bezala. Berdin berdin. Mile ta mile km egin behar ditu. Zeren ta bai, hezkuntza guzia D ereduan da, eta hango ume gehienak D ereduan daude, ez dauke aukerik beste modelo gauzetu den eta km horiek berberak eta problema horiek berberak baditu. Ta behin ere ez da erraten haien eskubideak urratzen direla.*
Hontakoan onartu beharra dut: Zur eta lur utzi nau. D eredua ezagutzen badu, nahita botatako gezurra da!
- *Hoi duk! Eskribitzak! Agudo! Beiretzak "Educa"!* –kontzientziak.
- *Ez diet behar.* –erantzuten diot. A ereduan, Lekarozko Institutuan, nere lantokian, hain zuzen ere, 1º ESOn, 7 ikasle, 2º ESOn, 6, 3º ESOn, 11, 4º ESOn, 9, 1. Batxilerren, 5 ikasle, eta, 2. Batxilerren, 3. Denak autobusez joaten ahal dira ikastetxera, ratio minimorik ez dute eskatzen taldea osatzeko, eta klasean egoteko baldintzak hobeagoak dira: Irakasleak arreta haundiagoa eskeintzen ahal die, gutiago baitira. (…) D ereduan erratio ofizialak eskatzen dira taldeak osatzeko eta modalitate eta hautazko ikasgaiak eskeintzeko. (…)
- *Hortxe tuk datu pelmak eta tozudoak! Sosa igual igual sartzen ditek A eta D eredutan…*–kontzientziak ironiaz. Debateak segitzen du, bainan kopeta ilun gaude, kontzientzia eta biok.
- *Ba, nik uste, eehh, baaa, nolabait, , klaro…* -botatzen dit kontzientziak.
– *Ez diet ja konprenitu.*
- *Ezta nik ere, bainan PPko andereñoaren ahotik irrifarra sortu dit.*
Neri ere. Telebistan Erkoreka dago. Banaie goatzera. Kontzientziak hauxe xurxuletu dit:
- *Dena den, hobe pensatute, ez duk irrimangarrie, baizik eta negar emateko modukoa.*
Hara, lo aurreko nere instantearen jabe zer ideia izanen den gaurkoan.

## Irakurleak mintzo

# D ereduko gure lankideari buruz

Doneztebe San Miguel ikastetxeko 19 irakasleak

Dagoeneko pasa dira zenbait egun komunikabideetan, Nafarroako D ereduko eskoletan lan egiten duten hainbat pertsonen zerrenda agertu zenetik. Zerrenda horretan, guardia zibilaren "txosten" bat aipatuz, ETAren ingurukoak omen direla dioen D ereduko irakasleak eta beraien lantoki diren edo ziren eskolak ageri ziren.
Aipatutako zerrendan irakasle baten aipamena egiten da eta gure eskola, Doneztebeko "San Miguel" ikastetxe publikoa agertzen da.
Horren harira, "San Miguel" eskolako zuzendaritza taldeak eta berekin lan egindako 19 irakasleok beharrezko eta zilegi deritzogu honako hauek aditzera ematea:
• Aipatutako irakaslea 2011/2012 ikasturtean talde baten turorea eta gure klaustrokidea izan zela.
• Egunero etorri zela eskolara erregulartasun osoz eta puntualitate ezin zorrotzagoaz.
• Bere lanerako jarrera eta inplikazioa gelako, zikloko eta zentroko ekintza, lan eta ardura guztietan bikaina izan zela.
• Gure herriko ohitura, kultura eta hizkuntzarekiko oso konprometituta lan egin zuela.
• Eskolako ekintza eta ospakizun guztietan parte hartu eta begirunezko jarrera izan zuela.
• Eta, adierazi nahi dugu EZ zuela jardun inolaz ere, haurrak politikoki doktrinatzen eta ezta terrorismo edota indarkeriaren apologia egiten ere, faborez!
Kurtso hasieran irakasle berriei harrera egiten zaienean, ez dugu beraien lehenaldiaz ezta ideologia politikoaz ere itaunketa egiteko ohiturarik. Baina hori bai, behin ikasturtea akitu eta joaten direnean beraien dedikazio, lan eta profesionaltasunarengatik gogoratzen ditugu. Orain aipatzen ari garen lankidearen kasuan gure oroitzapenak objetiboki apartak eta bikainak dira.
Dagokionari, etsenplua har dezala, neurriak paratu eta gai hau argi dezala.
Honelako oinarririk gabeko salaketek behar ez diren eztabaida eta zalantza ustelak sortzen dituzte. Gainera, ez diote inolako mesederik egiten, elkarrekin lan egin eta elkar hartuz, hezkuntza eragile guztiak batera garatu beharreko ikasleen heziketari.
Azkenik gizarteari, eskola honetako gurasoei eta zehazki tutore izan zen taldearen gurasoei, zera adierazi nahi diegu:
Eskola honetako irakasleen helburu nagusia gure ikasleak ahalik eta hobekien hezitzea dela, eta berriz diogu, gure lankidearen lana, jarrera eta inplikazioa bikaina izan zen, zentzu eta arlo guztietan.
Bioakio gure elkartasuna eta eskertza Ainarari.

# Doneztebeko Mendaur DBHI ikastetxeko klaustroaren adierazpena

Doneztebe Mendaur DBHI ikastetxeko klaustroa

Informazio faltsu eta adierazpen politiko arduragabeen soka luzearen aurrean, honako hau adierazten dugu:
1. Nafarroako Gobernuak, Lehendakaria eta Hezkuntza Kontseilaria buru, hezkuntza ideologikoki kontrolatzeko erakutsi duen asmoa arbuiatzen dugu. Bere jarduerak kultura demokratiko eskasa erakusten du; adierazpen, elkartze eta irakaste askatasunarekiko errespetu falta erabatekoa; eta nafar irakasleriaren lan hezitzailearekiko mespretxu onartezina.
2. 1.600 profesionalen gaineko ikerketa indiskriminatua salatzen dugu, beren intimitatearen, integritate profesionalaren eta askatasunaren aurkako erasoa den aldetik. Horrelako jarduerak bertan behera uztea eta dagokion ardurak argitzea exijitzen dugu.
3. Irizpide ideologiko eta alderdikoien arabera irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea mugatzeko saiakeren aurka azaltzen gara.
4. D ereduarekiko errespetua exijitzen dugu, hala berau ematen duten ikastetxeekiko (eskola publikoak eta ikastolak) nola, Sortzen bezala, hezkuntza euskaldun, inklusibo eta hezkidetzaile baten alde lanean dabiltzan elkarteekiko.
5. Nafar irakasleriak egiten duen lan hezitzailea aldarrikatzen dugu, Nafarroako Gobernuaren murrizketa ugarien gainetik kalitateko hezkuntza bermatzeko ahalegin itzela egiten ari dena.
6. Ikertutako irakasleekiko geure elkartasuna adierazten dugu.
Aurreko guztia adierazita, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari honako eskaera hauek luzatzen dizkiogu:
1. Departamentuak badu Ikuskaritza Zerbitzua indarrean dagoen hezkuntza egitura eta araudiaren aplikazioa bermatzeko. Irizpide sendorik gabeko ikerketa honek D ereduko irakasleak kriminalizatu ditu bere ideologia edo pentsaeraren arabera. Inolako funtsik ez duten egitateetan oinarriturik dauden ikerketak alde batera baztertzea eskatzen dugu.
2. Komunikabideetan hainbat idatzizko eta ikusentzunezko berri izan ditugu. Larriak iruditu zaizkigu hedabideek idatzi dituzten titularrak, agertu dituzten edukiak eta erabili dituzten tresnak (ezkutuko kamara).
Gertakizun hauen aurrean Hezkuntza Departamentuko kontseilariari bere sailari atxikituak diren ikastetxeko irakasle eta adin txikiko ikasleen intimitate eskubidea urratu ote den arakatzea eskatzen diogu. Hau hala bada, Departamentuko Zerbitzu Juridikoak erabiltzea eskatzen dugu horrelako eskubide apurketen kontrako helegiteak jartzeko.

# Lucia Larrañetaren familia esker onez

Mª Jesus RAMOS LARRAÑETA (Bera)

Ohar honen bidez, Lucia Larrañetaren seme-alaba, biloba eta birbilobak amatxiren 100. urtebetetzea horren berezi eta polita izateko lagundu diguten guztiak eskertu nahi ditugu. Hasteko San Jose erresidentziako langileak, eguneko egitaraua antolatu eta bete zedin horrenbeste lan egin dutelako. Jarraitzeko Bera Kantari taldea, *Zorionak* abesteaz gain beste hainbat kantuz alaitu gintuztelako. Udaletxeko agintariei, detaileagatik eta ekintzara agertzeagatik. Eskerrik asko ere ospatutako meza hunkigarriagatik eta nola ez, Berako Abesbatzari bertan abesteagatik, bereziki bukaeran eskainitako jota pertsonalizatuengatik. Ez dugu ahantzi nahi, egun berezi horren oroigarria izan dezagun, argazkiak ateratzen egon zen pertsonaz. Bukatzeko, Orbaitzeta, Espinal eta Iruñetik etorritako senitartekoak, eta egun berezi hori gurekin partekatzeko hurbildu ziren lagun guztiak eskertu nahi ditugu ere. Beraiengatik ez balitz, eguna ez zen berdina izango. Mila esker!

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA
Tel.: 948 63 54 58 Faxa: 948 63 54 57

## Prentsatik bildutakoak



«Edonora joanda ere beti dago ezagutzen zaituen norbait. Argentinara joan naiz, Venezuelara… eta beti dago euskal herritarren bat! Argentinara joan, Panpara, eta han ere bai. Begira, Irujoren aurka final bat galdu ondoren, hiru egunera edo, hotelera iritsi, telebista piztu, eta finala ematen ari ziren! Argentinan… Berehala kendu nuen, galdu egin nuelako».

**Aimar OLAIZOLA**
Goizuetako pilotaria
BERRIA 2013.12.10



«Eskupilotak telebistarako urratsa eman zuen eta horrek eman zion indarra. Telebistan asko galtzen du erremonteak eta eskuz kontrakoa: frontoian baino ikusgarriagoa da». «Denek pentsatzen zuten nire garaia igaro zela, baina 38 urterekin txapela irabazteak erakutsi zidan oraindik hor nengoela, gauza horiek ematen dizute jarraitzeko indarra».

**Koteto EZKURRA**
Doneztebeko erremontelaria
ARGIA 2013.12.15

## 11 galdera labur

**Zenbat urte pelukero?**
15 urterekin hasi nintzen aitari laguntzen (1925ean ireki zuen pelukeria Beran) eta 75rekin erretiratu berri naiz. 60 urte.

**Nork irakatsi zizun?**
Aitak, baina bere aita ere *barbero y practicante* zen Utergan.

**Zein izan zen ilea moztu zenion lehen pertsona?**
15 urte nituen eta ez dut gogoan, baina Barojatar guziak pasatu dira guretik, tartean Pio idazlea..

**Zein da hainbat urtez negozioarekin segitzeko sekretua?**
Beti hor izatea. Eguerdiko ordubatean etorri edo arratseko 8etan, Ibardineko bentetatik jautsi, bezeroek beti zuten pelukeriako atea zabalik.

**Nongo bezeroak izan dituzu?**
Berakoak ez ezik, Bortzirietakoak, Sarakoak eta Malerreka eta Baztango batzuk ere. Nonahikoak.

**Nork mozten dio ilea pelukero bati?**
Normalean nik mozten dut nere ilea, ez baitut aunitz eta emazteak txukuntzen dit lepoaren gibeleko aldea. Baina onena bertze pelukero batengana jotzea izanen litzateke.

**Nori edo zeri sartuko zenioke gustura aixturra?**
Tximaluze horietakoren bati, melena haundiegiak ikusten ziren lehen, orain guttiago.

**Gizonezkoen pelukeria izaki, noizbait moztu al diozu ilea emakume bati?**
Garai batean gehiago, ilea *garçon* erara eramaten zenean etortzen ziren, baina gutti.

**Erretiratu eta gero, zer asmo?**
Orain lasaiago hartuko dut, harat eta honat pasiatu, gibelera utzia genuen bidairen bat egin… Inoiz ez dut astebete opor hartu.

**Zein dira zure afizioak?**
Mendian oinez ibiltzea aunitz gustatzen zait, eta orain horretarako asti gehiago izanen dut.

**Amets bat?**
Guk gurea egin dugu eta semeak ongi bizitzea nahi nuke.



**Pepito IRIBARREN ➜ Berako pelukeroa 60 urtez**


















# ESKUALDEA

**GIZARTEA** ➜ EMAKUME ETA ERREKEN ARTEKO LOTURA

## 'Emakumeak busti egiten dira' egutegiak aurkeztu dituzte



ARGAZKIA: A. AROTZENA
Bidasoaldeko egutegian lanean ari diren emakumeetako batzuk, erreka bazterrean.

Baztan-Bidasoaldean eta Leitzaran-Urumealdean argitaratu dituzte

**TTIPI-TTAPA**

Antzina ingurune garrantzitsuak izaten ziren errekak emakumeen egunerokoan, hamaika lan, esperientzia eta bizipen sortu izan dira erreka bazterrean; egun ordea, albo batera utziak ditu. Horri irtenbidea emateko asmoz, 'Emakumeak busti egiten dira' ekimena jarri zuten martxan Crana eta Guratransek, bai Baztan-Bidasoaldean, baita Leitzalde-Urumealdean ere. Eta bakoitzean, bere egutegia argitaratu dute.

Bi bailaratan, hainbat emakumek parte hartu dute proiektuan, garai bateko harreman hura gogorarazi eta ikustaraziz. Hala, eskualdeko eta inguruko herrietako emakumeen argazkiak eta testigantzak bildu eta jasotakoarekin egutegi bat osatu dute.

Bi egutegiak abenduaren 17an aurkeztu zituzten: Baztan-Bidasoaldekoa Malerrekako Mankomunitatean, Doneztebén. Leitzaran-Urumealdekoa Leitzako Udaletxean.

Leitzaran eta Urumealdean, Gizarte Zerbitzuen laguntzarekin, Leitza, Areso, Arano eta Goizuetako hainbat emakumek parte hartu dute egitasmoan.

Baztan-Bidasoaldean, Cederna-Garalurren laguntza izan duten 24 emakume aritu dira datuak, testigantzak eta argazkiak biltzen: Koldobike Gorostiza, Arantxa Arregi, Txeli Arretxea, Nati Urroz, Marisol Taberna, Izaskun Abril, Filo Arretxea, Paquita Mikelarena, Mari Jose Mitxelena, Inés María Bazterrika, Mª Angeles Hernandorena, Estefanía Agesta, Josefa Etxeberria, Maritxu Etxenike, Francisca Iriarte, Mª Jesus Sagardia, Beatriz Manterola, Nati Otegi, Cándida Mitxelena, Mª Luisa Gainza, Rosa Mari Errandonea, Arrosatxo Ibarra, Amets Inda eta Eulali Indart.

Honela, erreka bazterrean, arropa garbitzeko lixiba egiten zirenekoak, edo bainujantzi bakarra izaki, errekan bustitzeko txandaka ibiltzen zirenekoa gogoratu zituzten, bertzeak bertze, aurkezpenean. Ederki laburbildu zuten bezalaxe, «nork erranen zigun orduan oinak busti gabe arropa garbitzeko aukera izanen genuela?».



**KIROLA** ➜ URTARRILAREN 12AN

# Santa Barbarara 6. igoera eginen da igandeko Mendi Egunean

## Goizean eskalada tailerra eginen da

TTIPI-TTAPA

Manttale, Agerra eta Gure Txokoak antolatutako Mendi Eguna eginen da urtarrilaren 12an eta horren baitan Santa Barbarako igoera eginen da seigarren urtez. Baina ez da ekitaldi bakarra izanen. Goizean eskalada tailerra antolatu dute Xanti Susperregirekin. 14:30ean Santa Barbarara ibilaldi gidatua eginen da, 14:45ean haurrentzako lasterketak eta 15:30ean binakako kronoigoera. Ondotik, berendua eta zozketa eginen dira eta 19:00etan Xanti Susperregi eta Mikel Ajuriaren *Viajar escalando* dokumentala eskainiko da Beralandetan.

### Mugaz Gain jaialdia saritua

Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkarteak (EHAZE) urtero ematen duen saria Mugaz Gain antzerki jaialdiak jaso du 2013an. EHAZEk euskarazko antzerkian egindako ibilbidea eta parekidetasunaren alde egindakoa baloratu du saria ematerakoan, eta Nafarroako talde bati eta Nafarroan egindako jaialdi batean emanez mezu berezia zabaldu nahi izan du: Nafarroan euskarazko antzerkiak duen egoera kaxkarra salatzea, hain zuzen, eta antzerkia indartzeko saiakera bat egitea.

### Su egur loteak

Ikusirik jende aunitzek zailtasunak dituela udalak emandako su egurretarako loteak ateri eta etxera garraiatzeko, udalak bertze aukera bat eman nahi die herritarrei lote hauek probexteko. Aitzineko urteetan bezala udala arduratuko da arbolak bota, egurra atera eta eskatzaileak nahi duen tokiraino garraiatzeaz. Izaten ahal da pista bazterrean uztea edo etxeko atariraino eramatea tokia baldin bada horretarako.

Loteak 5 Tonakoak izanen dira eta 200 euro ordaindu beharko dira. Intesatuek 012ra deitu eta lotea eskatu behar dute urtarrilaren 15a baino lehen. Loteak esleitu ondoren 012 bidez deituko zaie interesatuei ordainketa egiteko eta ondotik loteak banatuko dira.



ARGAZKIA: FOTO GOIKO

### Cáritas-entzat dirua biltzeko kontzertu zikloa Beran abiatu da

Cáritas-entzat dirua biltzeko helburuarekin, ongintzako opera kontzertuak eskaintzen hasi dira eta lehenbiziko emanaldia abenduaren 21ean egin zen Beran. Bera, Doneztebeko Mendi eta Elizondoko abesbatzekin batera Berako eta Elizondoko musika bandek eta hainbat abeslarik hartu zuten parte. Berako kontzertuaren ondotik, urtarrilaren 4an Doneztebeko elizan egitekoa zen eta martxoaren 14an Elizondokoan eskainiko da hondar emanaldia, ordutegi berean. Sarrerak 5 eurotan salduko dira eta aitzinetik erosteko aukera izanen da La Caixako bulegoetan. Sarrerak eskuratzeaz gain, dirulaguntzak emateko modua ere izanen da bertan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Ikaspilota eta fruitu ekologikoak urtea bukatzeko Labiagan

Abenduan, Labiaga ikastolako LHko 1. eta 2. zikloko ikasleek Nafarroako Gobernuak antolatutako fruta eta barazki ekologikoei buruzko tailerrean parte hartu zuten, ikastolan bertan CPAEN taldekoen eskutik. Fruta ekologikoak jatea beraien osasunerako zein garrantzia duen ikasi zuten ikasleek. Fruta ezberdinekin brotxetak egin zituzten, gero zumo eta mermelada probatu zuten. Bertze aldetik, Eztegara frontoian Baztan, Lesakako Tantirumairu eta Berako Labiaga ikastoletako LH5. eta 6. mailako ikasleek Nafarroako Ikastolen arteko Ikaspilotan parte hartu zuten. Pilotako modalitate ezberdinetan jokatzeaz gain, ikasleen arteko partida ikusteko aukera izan zuten. Akautzeko, Luis Mari Retegi (Berako pilota elkarteko arduradun ohia) eta Jon Apezetxea pilotari profesionalak pilotaren postalak banatu zituzten.








# LESAKA

**GIZARTEA** ➜ AZPIEGITURA BERRIA

## Harriondoa Kultur Etxea ekarri du aurten Olentzerok

Abenduko azken aste hondarrean inauguratu zen

**Aitor AROTZENA**

Herriko kultur eragile guztien artean sustatutako egitarau zabalarekin ireki zen Harriondoa Kultur Etxea joan den urteko azken aste hondarrean.

Luze joko luke kultur etxea eraikitzearen asmoa lehen aldiz sortu zenetik, Harriondoa bera eraiki den arteko pausuak, prozesuak eta gorabeherak azaltzeak, ugariak izan baitira. Azpimarragarriena, Madriletik jasotako diru-laguntzak (3,6 milioi) eta administrazio publiko ezberdinetatik jarritako baldintza tekniko zorrotzak (inongo diru-laguntzarik gabe) izan daitezke. Izan ere, azken hauen ondorioz zeuden eraikin zein espazioak modu eraginkorrenean erabiltzea oztopatu dute, proiektuaren tamaina eta beraz, eraikitzea suposatzen zuen kostu ekonomikoa handituz. Horren ondorioz, Udalak azken 2 urte hauetan, proiektua diru kopuru zehatz horretara (3,6 milioi) egokitu behar izan du.

**LIBURUTEGIA**

Diru egokitzapen honek berekin ekarri du, liburutegiko ekipamendua ezin aurrera eramatea. Nafarroako Gobernua 500.000 euroko laguntza emateko prest egon arren ez da oraindik jaso. Hala ere, 2014. urtean zehar, arazo honi konponbidea ematekotan da Udala, Herriko Etxeko 3. solairutik Kultur Etxeko behe solairura eramanen baitu liburutegia, beharrezkoak diren segurtasun eta sarrera bide egokiak ziurtatuz.

Herriko Etxetik aipatu dutenez, «bizi dugun egoera ekonomikoa horrelako proiektu batentzat egokiena ez den arren, Lesakak duen herri kultura eta haien gibelean dauden eragileen gaitasunak ziurtatzen du aitzinera aterako dela. Hortaz, Harriondoa eraikinaz gain, kultur proiektu herrikoia izan nahi du, bertatik, bertara eta bertakoentzat izanen den kultura sustatuz».

**Ba al zenekien ?**

**Nafarroako sagardotegi denboraldia ofizialki hasteko ekitaldia Linddurrenbordan eginen dela urtarrilaren 10ean. Astebete beranduago irekiko dituzte kupelak.**



ARGAZKIA: A. AROTZENA

### 28 olentzero eta jaiotzek parte hartu zuten lehiaketan

28 taldek parte hartu zuten abenduaren 24an Olentzero eta jaiotza lehiaketan. Jaiotzetan 6 atera ziren eta Olentzero lehiaketan 22, horietatik 11 hamar urte bitarteko kategorian, 11-16 urte bitarteko 7 eta 4 kategoria nagusian. Iaz bezala, Añarrak taldeak eskuratu zuen sari nagusia, baita Esparza saria eta Zerbitzuen Elkarteak hobekien kantatzen duenari emandako saria ere. Arratsaldean Musika Bandarekin karrikaz karrika ibiltzeko eskubidea ere irabazi zuten. Argazkia, kalejira bukaeran ateratakoa da, plazan.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

### Erabakitzeko eskubidearen aldeko dinamika aurkeztuko dute

Harriondoa Kultur Etxean 'Gure esku dago', Euskal Herriak duen erabakitzeko eskubidearen dinamika zabalaren aurkezpena eginen da urtarrilaren 18an. Ekitaldi honen berri emateko, agerpena egin zuten Udaletxeko Pleno Aretoan egitasmoari sostengua emateko bildutako eremu eta sentsibilitate desberdineko hainbat lesakarrek. Bertan elkartutakoen ordezkari gisa, hitza hartu zuen Maite Bidartek eta herritar guztiak gonbidatu zituen urtarrilean ospatuko den aurkezpenean parte hartzera. Hortaz gain, ekainaren 8an Iruñea eta Durango batuko dituen erabakitzeko eskubidearen aldeko gizakatean lesakarrak ere han izango direla aipatu zuen.






# ETXALAR



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN
Olentzero eta bere astoa, ilusioa partitzen.

GIZARTEA ➜ OSPAKIZUNAK

## Olentzero bere astoarekin ailegatu zen herrira

Jende andana bildu zen ikazkinaren inguruan ilunabarrean

**Irune eta Itsaso**

Abenduaren 24an, arratsaldean jende multzoa inguratu zen plazara olentzeroren irudiekin herriari itzulia ematera, txistulari eta trikitilariekin. Ondotik, berendua eskaini zieten gazteek haurrei. Meza ondotik Herriko dantzarien alde egindako saskiaren zozketa izan zen eta sariduna Xabier Ariztegi suertatu zen.

### Mendi ibilaldien hasiera

Abenduaren 15ean herriko mendizale taldeak Gorospilera egindako itzuliarekin eman zion hasiera sasoi berriari. Datozen igandeetan Aiako Harriak ,San Anton,Sunbilla eta bertze hainbat paraje ere bisitatuko dituzte. Interesa duenarentzat irteera bakoitza iragartzen duen papera jarriko da frontoiko pilarean.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

### Mus eta partxis txapelketa

Abenduaren 22an egin zen mus eta partxis txapelketako sari banaketa Larraburuan. Guztira 6 bikote aritu ziren musean eta 8 partxisean. Musean irabazleak Jesus Ansalas eta Santiago Olasagasti izan ziren eta bigarrenak Pello Apezetxea eta Jose Javier Zubieta. Partxisean berriz irabazle, Milagros Santesteban eta Koro Goienetxe izan ziren eta bigarrenak Enkarna Iparragirre eta Juana Mari Arburua. Sarituek trofeoa eraman zuten etxera oroigarri gisa eta parte hartzaile guztiek bazkari eder batekin eman zioten akabera txapelketari.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

### Goxo eltze lehertzea eta truke azoka

Abenduaren 22an, Kultur batzordeak antolatuta, truke azoka eta goxo eltze lehertzea egin ziren haurrentzat frontoian. Truke azoka lehenago egin bada ere, eltze lehertzearena ekitaldi berria izan da herriko haurrentzat. Eltze hauek, egun batzuk lehenago kultur etxean izan zen tailer batean beraiek egindakoak ziren.









ttipi-ttapa | 605 zk.
2014.01.09

# ARANTZA



ARGAZKIA: G. PIKABEA

## Mari Domingi eta Olentzero bixitan

Euria, hotza eta haizearekin etorri ziren Olentzero eta Mari Domingi frontoira. Horregatik, ohi baino laburragoa izan zen kalejira.

**GIZARTEA ➜** ...ETA ABIATU DUGU 2014 URTEA

# Eskolako ikasleek antzezlanak egin zituzten oporrak hartu aitzinetik

LOMCEren kontrako mosaikoan ere parte hartu zuten

**Nerea ALTZURI**

Urte zaharrari aio erran ondotik, hasi dugu urte berria. Ohi bezala, Eguberri aroko ekitaldiak izan dira eta horiek pasata berriz ere egunerokora itzuli gara.

Joan den abenduaren 18 eta 19an, eskolako lagunek antzezlanak eskaini zituzten.

Ohitura zaharra da eta aspaldiko urteetan, eskolan antzezlan ezberdinak prestatzen dira.

Aldi honetan, Haur Hezkuntzako ikasleek: "Oihanetik badoaz animaliak" izeneko lana eskaini dute; 1.go zikloko lagunek:"Marigorringo" antzezlana; DBHkoek "Zirko fantastikoa" antzeztu dute eta bigarren eta hirugarren zikloko neska mutikoek berriz, eskolaren mendeurreneko "Las eternas obras de la escuela de Aranaz".

Bertzetik, abenduaren 17an, asteartean, eskolatik aterata, "Lomce ez" mosaikoa egin zuten eskolako patioan.







ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

Ohikoa denez, antzezlanak eskainiz bukatu zuten urtea eskolako neska-mutikoek.






# IGANTZI

**GIZARTEA** ➜ 90 ETXETAN EGINA DUTE ESKARIA

## Etxe izenen errotuluak paratzen ari da Euskara Batzordea

Udazkeneko Kultur Egunetan hasi eta urtarrilaren 10ean bukatuko dute

**TTIPI-TTAPA**

Joan den abenduaren 7an, herriko zenbait etxetan errotulua paratzen hasi zen Euskara Batzordea. Guztira 90 etxe izan dira errotulua paratzea eskatu dutenak, baina egun horretan bortz paratu ziren, herriko musikarien, dantzarien eta hainbat herritarren aitzinean, Udazkeneko Kultur Egunen baitan.

Gainerako errotuluak orduan hasi eta urtarrilaren 10era bitarte paratzen ari dira, eta horretaz arduratu da Joxemari Burgete herritarra. Errotulua eskatu duten etxeetara joaten ari da, baina betiere beharrezkoa izaten da etxeko jabeak bertan izatea errotulua paratu ahal izateko.

Proiektu hau garatu ahal izateko, Igantziko Euskara Batzordeak merkatua antolatu zuen joan den apirilaren 28an. Bertan herritarrek emandako bigarren eskuko liburuak, apaingarriak, DVDak, bitxiak, baratzeko produktuak, etxean egindako postreak, mermeladak, kontserbak, sendabelarrak... saldu ziren, eta bildutako diruarekin proiektu hau aitzinera eraman ahal izan da.

### Biltokiko garbiketa

Biltokiko garbiketa egiteko lanposturako izena emateko epea ilbeltzaren 16an bukatuko da. Autonomo modura lan egiteko izanen da eta bazkideek lehentasuna dute.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA
Udazkeneko Kultur Egunen baitan paratu zituzten lehen errotuloak, dantzari eta musikarien laguntzaz. Argazkian, Goietxeko atarian, errotuloa jarri eta gero.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Auzolanean hainbat lan egin dira

Hainbat lan egin zituzten herritarrek auzolanean joan den urtean. Horren erakusgarri, ezkerraldean ageri da Larrondoko ikuztegia, lehen sasi tartean galdua eta orain txukun eta ederra. Galtzadak ere aspaldiko dotorezia berreskuratu du. Baina horietaz gain, trenbide bazterrak, bide eta bidaxkak garbitu, bankuak eta eskolako jolastokiko marrak margotu, Lesakarako bideko hostoak garbitu… Udalak eskerrak eman nahi dizkie herritarrei parte hartzeagatik.









# ESKUALDEA

**GIZARTEA** ➜ ABENDUAREN 20AN ALKAIAGAN

## Endarlatsa eta Bertiz arteko Bide Berdea ofizialki inauguratu dute



ARGAZKIA: A. AROTZENA
Bertizko Partzuergoko Izaskun Goñi gerentea eta Garbiñe Elizegi presidentea eta Luis Zarraluqui Nafarroako Gobernuko sustapen kontseilaria zinta mozten.

### 830.000 euroko inbertsioa egin da, 33 kilometroko bidea egokituz

**TTIPI-TTAPA**

Oinezko eta txirrindulazaleek Bidasoko trenbide zaharreko bide berdean 33 kilometro gehiago dituzte erabilgarri abenduaren 20tk aitzinera, Endarlatsa eta Bertiz Natur Parkearen arteko zatia ireki baitzuten ofizialki. Nafarroako Gobernuko Sustapen kontseilariak, Luis Zarraluquik, Garbiñe Elizegi Baztango alkate eta Bertizko Partzuergoko presidenteak eta Izaskun Goñi gerenteak moztu zuten zinta ibilbidearen irekiera-ekitaldian. Izan ere, proiektua Bertizko Partzuergo Turistikoak sustatu du Nafarroako Gobernuaren eta Europar Batasunaren laguntzarekin.

Ibilbidea berreskuratzeko lanak egiteko 830.000 euroko inbertsioa egin behar izan den arren, Bertizko Turismo Partzuergoak 2011ko udan egin zuen azterlan batean kalkulatutakoaren arabera, bide berdeak eskualdeari 796.000 euroko itzuli zizkion urte hartan eta, itxura guztien arabera, itzulera oraindik handiagoa izan liteke egindako inbertsioarekin.

Jarduera guztietarako erabili diren 830.000 euro horietatik, 730.000 euro Alkaiagako lurpeko pasabidea egiteko obretarako, eta pasabidea egokitzeko eta argiztatzeko erabili da, eta 100.000 euro ibilbidea sustatzeko ekintzetarako.

Zehazki, obren partidaren % 65 Europar Batasunak finantzatu du eta % 35 (255.940 euro) Nafarroako Gobernuak. Ibilbidea sustatzeko ekintzetara bideraturiko 100.000 euroren partidatik % 65 Europar Batasunak finantzatu du eta gainerako % 35 Bertizko Turismo Partzuergoak.

Alkaiagako lurpeko pasabidea izan denez inbertsiorik handiena bertan egin zuten zinta mozte ekitaldia eta gero Lesakako Bereauko zubira, garai bateko estazio ingurura joan ziren, herriz herri jarri diren informazio paneletako bat ikustera.

### EGINDAKO LANAK

Ibilbidea prestatzeko egindako lanik garrantzitsuena lurpeko pasabidea egitea izan da, N-121-A errepidearen azpitik doana, Alkaiaga inguruan. Era berean, ibilbidean zehar seinaleak jarri, tunelak argiztatu eta bide berdea igarotzen den leku batzuetan hainbat egokitzapen-lan egin dira. Gainera, babesteko barandak ere jarri dira.

Hurrengo fasea ibilbideak Iruñerantz segitzeko aurreproiektua egitea izanen da, Bidasoko bide berdea eta Plazaolakoa batuko dituen ibilbidea eginda, Saldiastik hasita, Orokieta parean. Horretarako, trenbidearen plataforma zaharra berreskuratu, zaharberritu eta egokitzeko lanak egingo direla aurreikusi da, baita jatorrizko bidea desagertuta duten tarte berriak eraikitzeko ekintzak ere. Bide berdea Eurovelo proiektuko bideetako batzuk dira. Proiektu hori kontinente osoa zeharkatzen duten bizikletaz ibiltzeko hamalau ibilbide nagusi egokitzeko Europar Batasunaren ekimena da.

Bidasoko trenbidearen ibilbideak 49 kilometro ditu, horietatik 42 Nafarroan, Endarlatsa eta Elizondo artean. Gipuzkoako zatiko 7 kilometroak Gipuzkoak Foru Aldundiak berreskuratu zituen 2009an. Doneztebe eta Elizondoren arteko bidea egokitzeko bigarren UPS bat egin beharko litzateke.











ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Olentzero egunean etxez etxe ibili zen ttikienen taldea.

**GIZARTEA ➜** EGUBERRIETAKO OSPAKIZUNAK

# Haize eta euripean ailegatu zen Olentzero

## Halere ongietorri beroa jaso zuen

**Maider PETRIRENA**

Meritu ederra izan du aurten Olentzerok, menditik jeitsi baita eguraldi txar horrekin. Haize eta euripean, baina beti bezala pozez eta urduri eman zioten ongietorria neska-mutikoek. Denak harrituta olentzero menditik beheiti ikusi zutenean. Ibilbidea nahiko azkar egin behar izan zuten baina halere hagitz ongi atera zen dena. Ondoren txokolatea izan zuten frontoian eta Olentzerori eskutitzak eta muxu pila eman zizkioten haurrek.

**Ba al zenekien ?**

**Ulibeltzak Elkarteak obraren ondoren berriz ere bere ateak ireki dituela**

### Zubietara bixita

Abenduaren 18an Lehen Hezkuntzako ikasleek Narbarteko eskolakoekin batera Zubietara irteera egin zuten. Iturendik Zubietara oinez joan eta 3 taldetan banatu ziren. Batzuek taloak egin bitartean bertzeek errota bisitatu zuten. Jinkanarekin eman zieten bukaera egunari. Hagitz kontent bueltatu ziren taloa egiten ikasi zutelako.






ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Malerreka kantuz egin zen

Abenduaren 7an Malerreka Kantuz ospatu zen bigarren aldiz Sunbillan. Eguraldi ezin hobea izan genuen eta giro aparta izan zen. Jendetza egon zen bertze herrietatik hurbildu zirenei esker, sunbildarrez eskas ibili baikinen. Lerro hauen bitartez herritarrak animatu nahi ditugu berriro antolatzen denean, kantuan ongi pasatzera etor daitezen.



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

### Denboraldi bukaera Ariztigain kanpinean

Abenduaren 14an Ariztigain kanpinean denboraldi bukaerako besta izan zuten. Bertan puzgarriak, segwaiak eta txokolatada izan zituzten haurrek. Mus txapelketan 12 bikotek parte hartu zuten. Irabazleak Ines eta Iñigo izan ziren, bigarrenak Txus eta Lourdes, hirugarrenak Jesus eta Angel eta laugarrenak Aintzane eta Bixente. Ondotik Bingoan jostatzeko aukera izan zen eta bukatzeko afari eder bat musikaz alaitua.



ARGAZKIA: ESKOLAK UTZIAK



### Eskolan egindako kabiak zintzilikatu dituzte

Abenduaren 10ean Eskolan landu duten Hegaztien proiektuari bukaera emateko Eskolan egindako Kabiak zintzilikatu zituzten herrian barna Gabi basozainarekin. Haur Hezkuntza eta Lehen hezkuntzako 1. mailakoak izan ziren parte hartu zutenak egun horretan. Abenduaren 13an gainontzeko taldeak aritu ziren lanean.

ttipi-ttapa | 605 zk.
2014.01.09

# DONEZTEBE

**HEZKUNTZA** ➜ D EREDUKO IRAKASLEEI GUARDIA ZIBILAK EGINDAKO IKERKETAREN HARIRA

## Ikastetxeetako ordezkaritzak jazarpen kanpaina salatu du

Mendaur instituko eskola kontseiluaren adierazpenera San Miguel eskolako irakasleak eta Guraso Elkartea atxikitu dira

**TTIPI-TTAPA**

Mendaur DBHI ikastetxeko Eskola Kontseiluak guraso, ikasle, ikastetxeko zuzendaritza eta irakasle eta Doneztebeko udaleko ordezkaritza biltzen du bere baitan eta D ereduko irakasleei guardia zibilak ustez egin dizkien ikerketaren inguruan eta «informazio faltsu eta adierazpen politiko arduragabeen soka luzearen aurrean» adierazpena argitaratu du. Bertan, «Nafarroako Gobernuak, lehendakaria eta Hezkuntza kontseilaria buru, hezkuntza ideologikoki kontrolatzeko erakutsi duen asmoa» arbuiatu dute. Kontseiluaren ustez, hauen jarduerak «kultura demokratiko eskasa erakusten du, adierazpen, elkartze eta irakaste askatasunarekiko errespetu falta erabatekoa eta nafar ikasleriaren lan hezitzailearekiko mespretxu onartezina» dira. San Migel ikastetxeko zuzendaritzak eta irakasleek eta Erreka Guraso Elkarteak ere bat egin dute adierazpenarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Errekaren Eguberrietako saskia Eratsunera

Eratsun aldera joan da Erreka elkartearen 2013ko Eguberriko Saski paregabea. Carmen Deskarga izan da irabazlea. Bere izenean bere semeak, Patxi Mariezkurrenak, boleto sariduna (5339) Erreka Kirol Elkarteko lehendakaria den Txibi Utergari eman zion abenduaren 24an, saskiaren trukean.

### Errekaren Mendiaren Eguna

Alex Txikon kirolari ezagunak Juan Telletxea eta Santi San Migueli luzatutako desafioa izan zen Errekaren Mendiaren Eguneko ekitaldirik bereziena eta horren berri zabala duzue kirol orrialdeetan. Baina bertze aunitz izan ziren. Goizetik 20 bat mendizale hurbildu ziren Bonozorrotzeko postontzira. Apustuaren ondotik, 80 bat lagun bildu ziren bazkaltzera eta Alex Txikonen *Bajo cero* emanaldiak zinema-aretoa bete zuen.

### Tabakoa uzteko tailerrak

Malerrekako osasun zentroan tailerrak eginen dituzte urtarrilean, «tabakoarekin duzun lotura hausteko». Ilbeltzaren 13, 16, 20, 23, 27 eta 30ean eginen dira tailerrak 12:30etik 14:30era Osasun Zentroan. Izen emateko, mediku edo erizainari galdetu behar zaio hilaren 10a bitarte.



**Pertsonaia**
Luis GARDE

### Bi olerki liburu karrikaratu ditu

Olerki liburu bat ez, bi argitara eman berri ditu Luis Garde idazleak. «Bi-biak hagitz diferente dira, bai elkarren artean bai orain arte argitaratu ditudan lanei dagokienez» aipatu digu Gardek. Lehenengoa, *Maizter arrotza*, duela urte bete Bilboko Udaletxearen Blas de Otero saria jaso zuena, Erein argitaletxeak editatu du. Bigarrena, *Trenen abiadura*, Pamiela etxeak. Bi poema luzek osatzen dute liburu hau, «biak askí narratiboak dira, haietako banatan argudio bat garatzen da; hain zuzen trenez egindako bidaia bat». Berriki epaitutako eta zigortutako nafar *tartalariei* eskaini nahi die liburu hau Gardek, «finean, abiadura gizatiar baten alde, hau da, tren motelen alde egiten baitut».






# ELGORRIAGA

GIZARTEA ➜ GARAIAN GARAIKO OSPAKIZUNAK

## Eguberrien ondotik inauterien txanda dator

Urtarrilaren 17 eta 18an izanen da mozorroen txanda

**Mattin LARRALDE**

Ekintzez betetako egunak izaten dira Eguberrietakoak. Abenduaren 15ean zuhaitza apaindu zuten haur eta gurasoek eta Gabon kantuak ensaiatu.

Abenduaren 24an, eguberritako zozketaren ondotik herrian buelta eman zuten. Aurten lanez gainezka zegoen olentzero eta lehen aldiz arratsean agertu zen, gero opariak banatzeko etxez etxe.

Abenduaren 26an Naxararen eskutik haurrendako kantaldia izan zen bainuetxean eta ondoren berendua izan zuten bertaratutakoek.

Abenduaren 28an Herriko Etxeko hirugarren solairuan Bihar taldearen *Adarbakar urdina* txontxongilo ikusikizuna eskaini zuten eta ondotik berendua.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Olentzerok goxokiak eta opariak banatu zituen.

Abenduaren 30ean bainuetxean bainatu eta ondoren txokolatea txurroekin hartzeko aukera izan zen.

Urtarrilaren 1ean, urte berriari ongietorria emateko urtatxak biltzera ateri ziren haurrak, zenbait helduren laguntzarekin. Biharamonean, herriko haurrak eta nerabeak Txingudira joan ziren arratsalde pasa eta horrela, Guraso elkarteak Udalaren eta bainuetxearen laguntzaz antolatutako Eguberrietako ekintzak akitu ziren.

Baina ospakizunek ez dute etenik. Izan ere, inauteriak hortxe daude. Urtarrilaren 17 eta 18an izanen dira Elgorriagan. Oraindik ez dago programa zehaztua, baina urtero bezala mozorroak jantzi eta ongi pasatzeko aukera izanen da.

# ZUBIETA

GIZARTEA ➜ ABENDUAREN 29TIK

## Hilabete erdialdera arte itxia dago errota

Langilea hartzeko deialdia egin du Udalak

**Fermin ETXEKOLONEA**

Errota abenduaren 29tik hasita urtarrilaren erdialdera arte itxia egonen da. Azken urteetan errota kudeatzen duen Mari Jexux Petrikorenari kontratua akitu zaio eta orain langilea hartzeko deialdi berria egin du Herriko Etxeak.

### Herriko lanak

Egoitz Esarte herriko lanetan ari da asteotan, Oinatz Asensio albintearen ordez. Urtarrila akitu arte ariko da Esarte, albinteari aita izateagatik baimena eta oporrak pilatu baitzaizkio.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

**Mari Domingik eman zuen Eguberrien berri**

Akitu dira Eguberrietako ospakizunak. Herrira, Mari Domingi etorri zen lehenik, abenduaren 22ko gauean, etxez etxe eskutitzak hartzeko.

### Herri sarrerako zuhaitzak bota dituzte

Herriko sarreran, kanale ondoan zeuden zuhaitz batzuk bota ditu berriki Maderas Santesteban enpresak.

Nonbait haritz eta platanondoak erortzeko arriskua zuten eta, ondorioz, kanaleko pareta hondatzeko edo errotako pasealekura erortzeko. Orain itxura berria hartu du herriko sarrerak.

# ITUREN

OSPAKIZUNAK ➜ EGUBERRIAK

## Ongietorri bikaina egin zaio oraingoan ere Olentzerori



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA
Olentzerok harrera beroa izan zuen eta haurrek ere ederki pasatu zuten.

Haurrek kantuekin ez ezik joaldunek ere joare soinuekin agurtu zuten

**Arkaitz MINDEGIA**

Aunitz maite dugun ikazkinak etxe aunitzetan opari polit eta ederrak utzi ditu. Bakarren bati ikatza ere utzi izanen dio seguruenik. Olentzerori ongi etorri polita eman zioten herritarrek kantu eta algarekin, baita joare soinuekin ere.

Iturenera sekulako bixita egin zuen ilunabar partean Olentzerok. Horretarako herria ederki zegoen jarrita, ibilbidea antortxez seinaliztatua eta herriko etxeko estalpean xoko polit bat atondua, haurren muxuak eta eskariak hartzeko. Hurrengo urtera arte olentzero!!!!

Duela egun gutxi eman diogu hasiera urte berriari. 12mahatsak janez eta umore onean ekingo genion seguruenik. Urte zaharrean utzi penak eta urte berri on!

### Santo Tomas eguna Aurtizko Ostatuan

Abenduaren 21ean, Santo Tomas egunean giro polita izan zen Aurtizko Ostatuan. Arratsaldeko 6etan zerri bingoa egin zen eta herritarren partehartze handia izan zen. Bi irabazle izan ziren, Arantxa Ariztegik txistorra eta botila bat ardo irabazi zituen linea eginda eta Kepa Leizak eraman zuen etxera Tomaxa xerrikumea bingo abestu ondotik. Gauean karaokea izan zen eta giro polita izan zen ostatuan ordu ttikiak arte.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Pulunpa eskolako Eguberrietako zozketa

Eskolako azken egunean besta ederra antolatu zuten irakasle eta ikasleak herriko etxeko ganbaran. Kantu eta dantza saio politak eskaini zizkieten hurbildu ziren guraso eta herritarrei. Ondoren eguberrietako zozketa egin zen eta honakoak dira zenbaki sarituak: zare eder bat, 591; zare bat, 005; zare bat, 369; bi lagunendako gaua eta gosaria Abarun Aurtizko Ostatuan, 400; bi lagunendako otordua Tresanean, 796; bi lagunendako *English Breakfast-Gosaria* Zubietako Ostatuan, 403; bi lagunendako Taloak eta edaria Elgorriagako Ostatuan, 200; 20 euroko bonoa Ariztegi Harategian, 172; 20 euroko bonoa Eider Ileapaindegian, 516; laugarren zare bat, extra, 574.









**GIZARTEA** ➜ ABENDUAREN 7 ETA 8AN EGIN ZEN

# Parte hartze handia izan zen abenduko elikagai eta jostailu bilketan

Esther janaridendan hainbat janari eta jostailu bildu zituzten

**Martin BERTIZ**

Abenduaren 7 eta 8an Narbarteko Esther janaridendan elikagai eta jostailuen bilketa egin zen. Parte hartze handia izan zen eta hainbat jostailu eta janari bildu zen.





ARGAZKIAK: MARTIN BERTIZ
Kisulabe inguruan gutunak eman zizkioten Mari Domingiri eta gero, Zubietako talogileek prestatutako taloak afaldu zituzten.

## Eguberriak

Abenduaren 15ean, Mari Domingi etorri zen haurtxoen gutuna jasotzera Olentzerori eramateko. Arratsaldean elkartu ziren haur eta guraso koadrila eta kisulabera joan ziren. Bertan, Mari Domingirekin elkartu, gutunak eman eta eguberritako kantak abestu ondotik, plazara abiatu ziren. Han, Zubietako talogileak zeuden eta ederki afaldu zuten denek.

Olentzeroa, berriz, haize eta euriarekin etorri zen, baina ez zuen hutsik egin. Puntual-puntual jeitsi zen menditik Gorriti auzora eta plazako bidea hartu zuen. Alkateak herriko etxe guztien giltzak eman zizkion eta ondoren herritarrekin eta musikariekin herrian barna kantari ibili ziren. Trinketean denendako merendua izan zuten eta ondoren Olentzero lanean hasi beharra zela eta abiatu egin zen.



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ
Eguberriak medio direla eskolan antzerkia prestatu zuten. Gustora gelditu ziren ikusleak eta aktoreak.



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ
Jaiotza bizidunak ez du hutsik egiten Eguberrietako egitarauan. Aurten ere eguerdi partean egin zuten antzezlana.

## Nekazaritza ibilgailuen azterketa

Urtero bezala nekazaritzarako ibilgailuen eta ziklomotorren inspekzio tekniko eginen da. Horretarako ITV empresako langileak Narbarteko plazara etorriko dira. Urtarrilaren 31n izanen da eta goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:30k arte egonen dira.



# SALDIAS

**HISTORIA** ➜ 1916AN AILEGATU ZEN HERRIRA GREGORIO PEREZ

## Angel Perez Galilea barberaren semeaz



Don Gregorio Perez, Saldiasko barbera

Bere aitaren kontuak idatzita utzi zituen joan den mendean

**Markel LIZASOAIN**

Saldistar batek eskribitu duen lehen liburua itzulpena dela aipatu genuen aurreko aldian. Lehen liburu originala, berriz, Angel Perezek idatzi zuen ondoko gizaldian: Don Gregorio Perez, Saldiasko Barbera. Angelek bere aitaz idatzi zuen memoria liburua da, eta Saldiasko gizaldi horretako kontu asko dakarzki. Gauza gehiago ere eskribitu zituen; dakigula, Principe de Vianak ateratzen zuen aldizkarian behin idatzi zuen; Maximori galdetzea litzateke egokia, haren goiti-beheitiez gehiago jakiteko. Memoria liburua noizkoa den ez du paratzen, eta 80ko buelta horretan idatzia delakoan nago. Liburuaren hasieran esplikatzen du Angelek nondik etorria zen Barbera: "Ortigosa de Camerosen jaio zen Don Gregorio eta hogeitazazpi urte zituen Saldisera etorri zenean. Herri honek ez zuen orduan errege-biderik eta ez du izan beranduago arte; gehienez hamabi urte izango dira Labaingoa egin zenetik eta bost bat urte izango dira Intxurekoa egin zutenetik. Azken hau, aldapa handikoa da baina mesede handia egiten die baserritarrei, zeren eta hoiek egin bitartean, gauza guztiak mando bizkarrena eraman behar zituzten herrira. 1916. urtea zen Don Gregorio iritsi zenean, orduan saldistarrak ez zekiten hitz bat ere erdaraz eta berak aldiz, ez zekien hitz bakar bat ere euskaraz. Jendearekin nola ulertzen zen ez dakigu baina hala izanik, meritu gehiago dauka. Ez zuen ikasi euskaraz hitz egiten baina esaten ziotena ulertzeko gai omen zen.

**BESTE PASARTE BAT**

Ttikitako bihurrikeria bat baino gehiago ere kontatzen ditu, honatx bat: «Etxeko abereen inguruan, esan behar dut behi ona edukitzen genuela, baina ernari zegoenean, esnea eskas izaten genuen, eta laguntza gisa, bi edo hiru ahuntz edukitzen genituen. Hauek kate luze batekin sasiei lotuak egoten ziren. Gure esku zegoen ahuntzak lotzea, baina maiz, behar ez zen lekuan lotzen genituen, kalte egiteko moduan. Gorroto handia zieten hauei herri guztian, batez ere eliz atzean soro-alorrak sasiz inguratuak zituztenak; soro hurbilena hau zenez hara jotzen genuelako beti. Arretxekoak, Intxurikoak eta Mekolonekoak ziren kalte handiena sufritzen zituztenak, eta behin baino gehiagotan lesatu, ipurdiko bat eman eta bidali egiten zituzten ahuntzak. Batzuetan, buztan karrotia ere ematen zieten eta, orduan, izerdia ateratzen genuen hauek bilatu eta harrapatzen".

**MALERREKA** ➜ DONEZTEBE, ELGORRIAGA, ITUREN, SUNBILLA ETA ZUBIETAK

## Ur hornidura kudeatzeko bat egin dute bortz herrik



ARTXIBOKO ARGAZKIA

2007an inauguratu zuten Aurtitzen dagoen ur depositu berria. Bortz herritako 3.500 bat erabiltzaile hornitzen ditu.

Erakunde berria osatu dute Mankomunitate aren barnean

**TTIPI-TTAPA**

Ur horniduraren kudeaketarako bat egin dute Malerrekako bortz udalek. Zehazki, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Sunbilla eta Zubietako udalek bat egin dute Malerrekako Mankomunitatearen baitan erakunde autonomoa izanen den organo berrian.

2007an Aurtitzen egin zen ur biltegiak hornitzen ditu bortz herriotako 3.500 bat erabiltzaile. Ordura arte ura hainbat iturritatik hartzen zuten: iturendarrek Borzadar, Xelat, Lertxundi, Berrurta eta Iturriatik; Elgorriagak Malkorratik; Doneztebek Errotazarretik; Sunbillak Bidasoa ibaitik, eta Zubietak Txitxillotik.

Sei urte beranduago arte, ur biltegia erabiltzen duten bortz udalak ez dira erakunde berean elkartu. Erran bezala, Malerrekako mankomunitatearen antolaketaren barnean egonen da erakunde berria, nahiz funtzionamenduan autonomoa izanen den. Miguel San Miguel Doneztebeko alkateak aipatu duenez, «baliabideak aurrezteko eta ahal den neurrian gauzak errazteko erabaki dugu mankomunitate berririk ez sortzea eta Malerrekakoaren baitan eratzea organo berri hau».

# EZKURRA

GIZARTEA ➔ HISTORIAN ATZERA BEGIRA

## Gaztelu bat ote zegoen herrian?



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA
Parrokiaren atzealdean, gazteluaren arrastoak daudela dio historia irakasle batek.

Gazteluaren hondakinekin parrokia eraiki zela dio historia irakasle batek

**Fernando ETXEBERRIA**

Historiako irakasle baten bisita izan dugu berriki herrian. Uztailean izana zen herrian eta “Ezkurra, herri berezia” liburua irakurtzeko aukera izan zuen orduan. Liburuan irakurritako zenbait konturekin ez du bat egin eta bere ikuspegia herritarrekin partekatzeko aukera izan du oraingoan. Liburuan biltzen denez, Hamarrendegian bizi izan zen herriaren eta bertako herritarren jabetza aldarrikatzen zuen jauntxoa. Historialari honen arabera ordea, Hamarrendegia ez zen izan jauntxoen lehendabiziko etxea, horren ordez dio parrokiatik hurbil zegoen gaztelu batean bizi izan zirela.

Jakina da, jauntxoak boteredunekin harreman onak izaten saiatzen zirela, diruz lagunduz edota zuzenean gerran parte hartuz. Historialari honen esanetan, Jauntxoa gerran zegoenean, gaztelua erre zioten paretak bakarrik utziaz zutik. Hala, gaztelua suntsitua zegoenez etxez aldatu eta orduan jarri ziren “hamarrendegian” bizitzen. Parrokiaren atzekaldean gaztelu haren arrastoak daudela aipatu zuen historialariak bere teoriari indarra emateko. Baina zergatik ezagutzen dugu Ezkurrako Parrokia bezala? Zergatik ziren garai hartako jauntxoen eskariak Ezkurrako alkate izatea, parroko berria izendatzea, elizan ohorezko tokia izatea eta parrokian bertan hilobiratuak izateko eskubidea edukitzea?

Artxiboek diote jauntxoak arduratu zirela eliza eraikitzeaz, herritarrek emandako diru-laguntzekin. Horretarako gazteluaren hondakinak erabili ote zituzten ez dakigu... Egia, asmakizuna, kondaira edo inoxente eguneko broma ote da? Auskalo!

### URTE BERRI ON

Eskuetan duzuen Ttipi-Ttapa urteko lehenbiziko dela kontuan izanik, 2014 zoriontsua opa dizuet irakurle guztioi. Ez dira garai errazak, baina ziur egoerari buelta ematea lortuko dugula, okerragoetatik ateratzea lortu izan dugu eta.

# ARKUPEAK

GIZARTEA ➔ ABENDUAREN 18AN

## Urteko kontuak kitatuta, urte berriari begira



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA
Santa Maria jatetxean bildu ziren eskualdeko ordezkariak.

Aurtengo kuota 10 eurokoa izanen da

**Martin BERTIZ**

Abenduaren 18an Arkupeak elkarteko ordezkariek bilera egin zuten urtearen errepasoa egiteko. Bidaiak, ikastaroak, hitzaldiak… asko izan da urteak eman duena eta parte hartzea handia izan dela azpimarratu zuen Arkupeakeko presidenteak. Zehazki bidaietan 2.955 bazkidek parte hartu dute, ikastaroetan 199k eta hitzaldietan 218k. Diru laguntzen inguruan ordea, datuak ez dira hain baikorrak. Krisi ekonomikoak gogor jo ditu bazterrak eta eragin handia izan du pentsiodunen artean. Nafarroako Gobernuak aurten, 16.037,47 euroko dirulaguntza eman du, kopuruak nabarmen egin du behera, iaz adibidez, 46.982,87 euroko laguntza eman zuen. Dena dela, datorren urteari ere ilusioz eutsi diote eta ekintza ugari prestatzen ari dira. Urtarril erdialdetik aurrera jasoko dute elkartekideek boletina etxean eta bertan xehetasun guztiak topatuko dituzte. Aurtengo ikastaroekin segiko dutela jakinarazi dute eta beste hiru ere eskainiko dira: ingelesa, argazkigintza eta altzairuak eraberritzen ikasteko aukera izango dute aurtengoan. Gogorarazi dute, ikastaroetan izena eman nahi dutenek urtarrilaren 31a baino lehenago apuntatu beharko dutela elkartera deituta edota ordezkariei jakinarazita.

# GOIZUETA

**GIZARTEA** ➜ 2013AN EZ ZEN BAZKIDE BERRI IZATEKO ESKAERARIK EGON

## Bazkide berriendako erraztasunak emanen ditu Umore Ona elkarteak

25 urtetik beherakoak hileko 25 euroko kuota ordainduta izan daitezke bazkide



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI

Umore Onako 80 bat bazkidek bazkaria egin zuten abenduaren 14an.

**TTIPI-TTAPA**

Umore Ona Elkartean 2013an ez da bazkide berri izateko eskaerarik egon. Honen atzean era askotariko arrazoiak egon daitezke, gustoko ez izatea, beharrik ez izatea, edo arazo ekonomikoa. Nahiz eta azken 15 urteetan sarrera kuotarik ez den igo gaur egungo egoera ekonomikoak ez du bultzatzen benetan premiazko gastuak ez direnak egitera. Egoera hau arintzeko asmoz sarrerako kuota ordaintzeko erraztasunak jarriko ditu Umore Ona elkarteak 2014an.

Horrela hilabetean 25 euroko 12 kuota ordainduta bazkide izan daiteke 25 urte baino gutxiago duen edozein. 25 urte baino gehiago dauzkatenek berriz 70 euroko kuota bat eta 40 euroko 11 kuota ordaindu beharko dituzte.

Interesatua dagoenak, elkarteko bi bazkideren babesarekin, orain arte bezala, izena eman behar dio urtarrilaren 25a baino lehen komisioko edozein kideri. Eskaria datorren urte hasieran egingo den batzarrean erabakiko da.

**?**

### Baialtzinikin

**Amets Arzallusek Xalto Saria eskuratu zuela 1998ean eta Goizuetan ospatutako finalean berak irabazi zuela 2000. urteko Nafarroako Txapelketa. Beraz, oraingoz azkena BECen, baina bere bi lehen txapelak herrian lortu zituen.**



ARGAZKIAK: ANGEL SALABERRIA

### Herriko hiru pilotari txapeldun Zizurkilen

Zizurkilgo hirugarren pilota txapelketako finalak jokatu ziren abenduaren 15ean eta hiru herritar suertatu ziren txapeldun. Infantiletan, Aitor Aizkorbek eta Antton Apezetxeak 18-14 irabazi zieten Oberenako Mata eta Azpeitiko Egiguren-i. Kadetetan, Iker Salaberriak, Logroñoko Morenorekin bikote eginez, 22-20 irabazi zien Ataungo Zubizarreta eta Azpeitiko Alberdiri.

**GOIZUETA-ARESO**

### Asier Olaizola eta Mikel Olazabali ez diete kontratua berritu Asegarce eta Aspek

**TTIPI-TTAPA**

Urte amaieran bukatu zitzaien kontratua eta enpresek hura ez luzatzeko erabakia hartu zuten. Ate bat itxi zaien arren, biek pilotan segitzeko nahia azaldu dute eta Asier Olaizolak dagoeneko Garferekin sinatu du kontratua. Mikel Olazabalen etorkizuna berriz hau idazterako orduan oraindik airean zegoen.

Biek ala biek ibilbide polita egin dute orain artean. Hamazazpi urtez aritu da Asier Olaizola maila profesionalean, hasieran Asperekin eta Asegarcerekin amaieran. Lortutako garaipenean artean, eskuz binakako 1997 eta 2001eko txapelak ditu eta 2002an txapeldunordea izan zen.

Mikel Olazabalek berriz, 2007an debutatu zuen. Besteak beste, 2012ko promozioko binakako txapelketako txapeldunordea izan zen. 2013ko Promozioko Lau terdiko txapela ere eskura izan zuen, baina gogor borrokatu arren ihes egin zion 19-22 galduta Lemunoren aurka. Abenduaren 30ean Beotibar pilotalekuan jokatzekoa zuen Asperekin azken partidua.



ARGAZKIA: E.IRAOLA

Olazabalek hunkituta eskertu zuen Beotibarren Lau terdiko finalean senide, lagun eta herritarrek emandako babesa.

**ONDAREA** ➜ EZUSTEKO AURKIKUNTZA

# Burdin aroko ontzi baten aztarnak aurkitu dituzte Ulizarko kobazuloan

Eskualdean ezaugarri hauek dituen ontzi bakarra da

**Juana Mari SAIZAR**

Izugarrizko harridura eta sorpresa eragin du Ulizarko kobazuloan berriki egindako aurkikuntzak. Herriko ahoz ahoko historian biltzen denez, inkisizio garaian kobazulo bat zegoen Ulizar inguruan, akelarre tokia zena. Uste hauei tiraka, Burdina taldea, Santa Kruz ermitaren magalean indusketa lanak egiten ari zenean egin zuten aurkikuntza, zeramikazko 90 zati topatu zituzten. Aresoko Udalak ikerketa bultzatu du eta Nafarroako Gobernuko Arkeologia sailak egindako txostenaren arabera K.a. IV mendekoak dira bildutako zatiak, lehendabiziko hipotesien arabera, garai hartan etxean erabiltzen ziren ontzi batenak. Orain ikertzen segiko dutela adierazi dute, herriko historia hobeki ezagutzeko asmoz. Aurkikuntza udaletxean ikusgai jarriko dutela azaldu zuen Aresoko alkateak.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR
Ur Algero, Aresoko alkatea eta aurkikuntzan parte hartu duten talde eta erakundeetako kideak, prentsaurrekoan.

## Anartz Olano Getxon txapeldun

Anartz Olano Aresoko pilotari gazteak abenduaren 15an Gabonetako Binakako Esku Pilota Txapelketan irabazi zuen Apeztegia lagun zuela. Getxon jokatu zen jaialdia eta txapelaz gain, pilotari onenaren saria ere beretzat izan zen.



ARGAZKIAK: ENERITZ IRAOLA

## Olentzerori etorrera goxoa egin zitzaion

Euripean baina, Ikazkinak ez zion hutsik egin urteroko bisitari. Goizean haur eta gurasoek herria alaitu zuten beren kantuekin eta iluntzean kantuan eta dantzan, ongi etorri goxoa egin zioten Olentzerori.

## Urteko lehenengo deialdiak

Udalak jakinarazi duenez, urtarrilaren 10ean arratsaldean hogeikoa egingo da. Bertan aurrekontuen, mapa lokalaren... gaineko informazioa emango zaie herritarrei. Bestalde parrokiaren antolakuntza berria ezarri da artzapezpikutza guztian eta funtzionamendu berria azaltzeko bilera egingo da urtarrilaren 9an.



ttipi-ttapa | 605 zk.
2014.01.09

# LEITZA

**KULTURA** ➜ MOTA GUZTIETAKOAK IKUS ZITEZKEEN

## Indartzen ari da Orantzaroa etxeetan jartzeko usadioa

Arinaldeko magaletik behera etorri zen iluntzean ikazkina

**JM BARRIOLA**

Urteroko bisitari ez zion hutsik egin Orantzaroak. Iluntzean iritsi zen plazara Arinaldeko magaletik behera eta kalejiran eta pesta giroan ospatu zuten herritarrek bere etorrera. Gauean berriz, etxeetan zehar ibili zen opariak banatzen. Egunean zehar herriko etxe ugaritan bestelako Orantzaroak ikusteko aukera ere izan zen, usadio zaharrarekin segiz asko izan zirelako etxea apaintzeko ikazkina balkoi edo atarian jarri zutenak. Eguerdian txikienak izan zuten protagonismo osoa, kalejira egin eta txondorrean gutunak botatzeko aukera eman zitzaien. Pesta Batzordeak, hau da, Aurrerak, Guraso elkarteek, Kultur taldeak, Udalak eta herriko zenbait eragilek elkarlanean antolatu zuten geroz eta garrantzia gehiago duen pesta.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA ETA E.IRAOLA

Mota guztietako Orantzaroak ageri ziren herrian, baita errekan ere... Eta eguraldiak lagundu ez bazuen ere, haurrek kalejira egin eta gutunak bota zituzten txondorrean.

**Ba al zenekien** ?

**Nafarroako eta Espainiako Gobernuak Tokiko Maparen erreforma gauzatu nahi dutela. Protesta ugari deitu dira eta datozen hilabeteetan ikusiko da egitasmoak hartuko duen bidea.**

**GIZARTEA**

### Euskarabideak diru laguntzik ez du eman aurten

**JM BARRIOLA**

Nafarroako Gobernuak euskararen aurka eman dituen azken urratsak salatzeko asmotan, abenduaren 22an prentsaurrekoa eskaini zuten zenbait erakundek Iruñean eta tartean ziren eskualdeko zenbait ordezkari. Euskarazko komunikabideei kendutako diru-laguntzak, D ereduko irakasleei egindako azken aldiko erasoak eta euskara zerbitzua duten udalei Euskarabideak ematen zien diru-laguntza deuseztatu izanak piztu du haserrea. 2012. urtean, %82ko jaitsiera izan zuen udalek jasotako laguntzak, 727.344 eurotik, 133.000 eurora jaitsi zuten. Aurtengoan egoera gehiago okertu da, laguntza erabat ezabatu dutelako Iribas sailburuak Mankomunitateekin zuen hitzarmena bertan behera utzi ondoren.



JM BARRIOLA

### ‘Emakumeak busti egiten dira’ egutegia kalean da

Crana erakundeak lagunduta, Leitza, Areso, Arano eta Goizuetako emakume talde batek erreken eta emakumeen arteko lotura aztertu dute ‘Emakumeak busti egiten dira’ ekimenaren baitan. Gaiaren inguruko argazki eta testigantzak jaso ondoren, testuak osatu eta 2014rako egutegia osatu dute. Pasa den abenduaren 17an arratsaldeko 18:00etan egin zuten egutegiaren aurkezpena Leitzako udaletxean. 750 ale banatuko dituzte orain parte hartu duten lau herrietan, interesa dutenek, udaletxean edota liburu dendetan eskuratu dezakete.



JM BARRIOLA

### ‘Euskararen kate hautsiak’ liburua

Euskal memoria fundazioaren eskutik idatzi eta argitaratu du berriki Dabid Anaut herritarrak liburua. Abenduaren 17an Atekabeltz herrigunean izan zuen lana herritarren aurrean aurkezteko aukera eta jende ugari hurbildu zen gaiak interesa baduela erakutsiz. Gure hizkuntzak jasan dituen jazarpenaren ingurukoak bildu ditu Anautek lan honetan.

# BAZTAN

**GIZARTEA** ➔ TRANPAK JARRIKO DIRA URTE OSOAN

# Liztor asiarrari aurre egiteko hitzarmena sinatu dute

## Udalak eta Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarteak

**TTIPI-TTAPA**

Liztor asiarrari Baztanen aurre egiteko jarraitu behar diren jarduketak arautzeko xedearekin elkarlan hitzarmena sinatu dute Balleko Etxeak eta Baztango Ehiztari eta Arrantzaleen Kirol Elkarteak. Bertzeak bertze herritarrei argibideak ematea, kexak kudeatzea eta liztorhabiak ezabatuko dira.

Baztango Udalak 6.935 euro ordainduko dizkio Ehiztari eta Arrantzaleen Kirol Elkarteari eta honek hamar hilabetez, otsailetik urrira bitarte, hainbat tranpa paratuko ditu liztor asiarrak harrapatzeko. Otsail eta martxoan tranpa gehiago paratuko ditu, erreginak harrapatzeko aukera handiagoa baitago. Elkarteak, tranpen jarraipena egiteaz gain, konpondu eta bilduko ditu, harrapatzen diren intsektuak aztertuko ditu eta, 15 egunean behin, sustantzia erakargarria berrituko du. Behin habiak topatuta, Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarteak habiak suntsituko ditu, ingurumenari kalterik eraginen ez dioten sistemak edota metodoak erabiliz.

Baztango Ehiztari eta Arrantzaleen Kirol Elkarteak harremanetarako puntu bat ezarriko du (dela posta elektroniko bat, dela telefono zenbaki bat, dela faxa), Baztango edozein herritar haiekin harremanetan jar dadin, liztor asiarrei buruzko argibidea eta laguntza behar izanez gero. Era berean, herritarrak kontzientziatze aldera, Ehiztari eta Arrantzaleen Kirol Elkarteak gutienez bi solasaldi eginen ditu herritar guztiendako irekiak, baita Baztango ikastetxeetan ere.




ARGAZKIA: GOURMET-IMAGE

### Betiko sukaldaritzari buruzko liburua aurkeztu dute

«Eguneroko sukaldaritzaren gozamena, erabilgarri eta erakargarria, euroei probetxu ateratzen lagunduko dizuna». Horrela aurkeztu dute Xabier Landa eta Carmen Garcia Romero iruritarrek argitaratu berri duten liburua, "Cocina original". Aurkezpen ofiziala abenduaren 21ean egin zuten Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. *Pottoka* musikariak ere bere emanalditxoa eskaini zuen. Egileek diotenez, liburu honetan «gure arrantzaleen, artzainen, monasterio zaharretako fraide-seroren eta etxeetako sukaldarien errezetak» bildu dituzte, baita «Baztango kultura eta lehengaiak: nola egokitu urritasun garaietara».



# BAZTAN

**GIZARTEA** ➜ URTARRILAREN 18AN EGINEN DA

## Tokiko garapenaz solasaldia antolatu dute Arizkunenan

### Jaime Izquierdo asturiarra izanen da hizlari

**TTIPI-TTAPA**

Baztango eragile sozial desberdinek elkarlanean Jaime Izquierdo Vallinarekin - idazlea eta lurralde garapenean aditua den asturiarrarekin, tokiko garapenari buruzko solasaldia antolatu dute Elizondon. Mintzaldia *Baztango etorkizuna tokiko garapenetik eraikiz: herritarren artean adostutako proposamenak* izenburupean eginen da, gazteleraz, urtarrilaren 18an, goizeko 11:00etan Arizkunenea kultur etxean. Jakoba Errekondok eginen du aurkezpena.

Solasaldiaren antolatzaileak dira: EHNE, Elizondoko Lanbide eskola, Erdiz Bizirik, Hiruak Bat Baztan-Bidasoko landetxeen elkartea, Baztandarren Biltzarra, Barraskiloak kontsumo kooperatiba, Jo ala Jo kultur elkartea eta Baztan-Bidasoko hazien sarea, Udalaren eta Cederna-Garalurren laguntzaz. Antolatzaileen aniztasunak tokiko garapenari buruz Baztanen dagoen kezka erakusteaz gain herriko eragileen arteko elkarrizketa eta lanketa hasi berria adierazten du, baita tokiko garapenari buruzko ikuspegi jakin bat ere.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

**Olentzero eta Maridomingi Elizondon**

Urteroko legez, Olentzero eta Maridomingiren bisita izan zuten Baztango haurrek, opariak eta ilusioa partituz igaro zuten abenduaren 24ko arratsa.

### Metaziri sarera

Metazirik gure ingurua aztertu, ulertu eta aldatzeko eginahalean jarraitzen du, «Baztanen pentsamendu sozial kritikoa zein eraldatzailea sortzeko auzolanean aitzinerat goazela kapitalismoaren kontra eta jendarte eredu berriaren alde».

Oraingoan sarera egin du salto eta, blog baten bidez (http://metaziriekoizpenak.blogspot.com) bere material eta ekoizpenak emanen ditu ezagutzera: testu zaharrak eta berriak, argitaratutako aldizkariak, Metazirik ekoiztutako liburuak….

Xabier Odriozola Ezeizaren *Gizonezkoen sexismoa, maskulinotasuna eta askapena: berdintasunerantz* izeneko saiakera argitaratu dute eta, luze gabe ere, 17. Metaziria karrikaratuko dute.

**FLASH**

### Abortatzeko eskubidearen dossierra aurkeztuko da

Nafarroan abortatzeko eskubidearen aldeko batzarrak solasaldia eskainiko du urtarrilaren 17an, arratsaldeko 6etan Elizondoko Arizkunenean. Abortatzeko eskubidearen txostenaren datuak plazaratu eta sexu eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzko legearen erreformaren inguruko informazioa emanen dute.

### 0-6 urteko seme-alabekin atxikimendua

Gurasoen eta 0-6 urteko seme-alaben arteko atxikimenduari buruzko tailerrak antolatu dituzte udaleko Gizarte Zerbitzuek. Urtarrilaren 8, 15 eta 22an eginen dira, 10:00etatik 12:00etara Elizondoko Osasun Etxeko Emakumearen Zentruan. Nerea Mendizabal psikopedagoga eta gizarte hezitzaileak emanen ditu tailerrak. Lehen bi saioak teorikoak izanen dira eta hirugarrenean haurra ere eramaten ahal da, praktikoa izanen baita.











GIZARTEA ➜ ARGAZKIEN BIDEZ

# Enplegu Babestuaren lana ezagutzera emateen duen erakusketa herriz herri dabil

Bi urtez erdira baino gutiagora murriztu da Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak Enplegu Babestuaren berri emateko argazki erakusketa antolatu du. "Urteetan gure zenbait herritako karriketan langile hauek lanean ikusi ditugu, eta egin dituzten lanak ezagutzerat eman nahi dizkizuegu" aipatu zuten aurkezpenean. Abenduaren 19tik 31ra Elizondoko Arizkunenea Kulturetxean ikusgai izan zen eta aurten herriz herri ibiliko da.

Nafarroako Gobernuko murrizketen eraginaren islada da Enplegu Babestuaren programa ere. 2011. urtean 74.829,88 euroko dirulaguntza izan zuen eta 7 langile aritu ziren 11 hilabeteko proiektuan, Baztango bidexkak berreskuratzen, seinaliztze eta mantentze lanetan eta jendarte trebetasunak lantzen.

2012an 48.456,83 eurora murriztu zen dirulaguntza. 9 langile aritu ziren zortzi hilabeteko proiektuan, markesina bat eraiki zuten Arizkungo Bergara auzoan eta trebetasun emozionalak, egonkortasun emozionala eta ardura pertsonala eta enplegu bilaketarako teknikak landu zituzten.

2013an, azkenik, 33.652,97 euroko laguntza izan zuten eta 11 langile aritu dira hamar hilabeteko proiektuan. Motozerraren erabilera, joskintza eta enplegu bilaketarako teknikak landu zituzten.

Aipatzekoa da azken bi urteetan begirale bat kontratua izan dela koordinazio eta kudeaketa lanetarako.

Elizondoko erakusketaren ondotik, 2014an herriz herri ibiliko da erakusketa. Arizkunen urtarrilaren 2tik 15era dago ikusgai; Amaiurko Otsondo barride elkartean urtarrilaren 16tik 29ra egonen da; Berroetako Batzartokian urtarrilaren 30etik otsailaren 12ra; Anizko elkartean otsailaren 13tik 26ra; Iruritako Damaso Zabalza Bilgunean otsailaren 27tik martxoaren 12ra; Erratzun martxoaren 13tik 26ra; Gartzainen martxoaren 27tik apirilaren 9ra; Arraiozko batzartokian apirilaren 10eetik 23ra; Azpilkuetan apirilaren 24tik maiatzaren 7ra; Oronozko batzartokian maiatzaren 8tik 21era; Lekarozko Herriko Etxean maiatzaren 22tik ekainaren 4ra, Elbeten ekainaren 5etik 18ra eta Zigan ekainaren 19tik uztailaren 2ra.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Bi baztandar sarituak Baztan-Bidasoaldeko argazki lehiaketan**

Baztan-Bidasoko lehen argazki lehiaketako sariak banatu zituen Bertizko Partzuergo Turistikoak. Denera, hamar argazkilarik 25 argazki aurkeztu zituzten. Lehen saria hutsean gelditzea erabaki zuen epaimahaiak, «bilatzen ziren helburuak bete ez zirelako». Bigarren saria (Bi pertsonentzako otordua Iruritako Olari jatetxean), Iruritako Pello Iriarteren argazkiari eman zioten eta hirugarren saria berriz, Pello San Millan-en argazkiari. Bi saridunak epaimahaiko Diana Iniesta, Mari Joxe Iparragirre eta Izaskun Goñirekin ageri dira.

GIZARTEA ➜ BAZTANGO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUEN ESKUTIK

# Minbiziari buruzko laguntza taldea sortu da

Hitzaldiak eta tailer praktikoak egiten ari dira Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Minbiziari buruzko laguntza taldea sortu da eta martxora bitarte hainbat hitzaldi eta tailer teoriko-praktiko antolatuko ditu. Lehenbizikoa Saray Bularreko minbiziaren Nafarroako taldeak eman zuen abenduaren 19an eta urte berriarekin bertze hainbat izanen dira.

Saioetan parte-hartzea irekia da, interesa duen edonorentzat zuzendurik izanen baitira (gaixoak, familiarrak, gaiekin interesatuak…). Izan ere, elkartu eta esperientziak konpartitzea da helburua, «elkartzeak, bat egiteak, konpartitzeak… onura aunitz dituelako».

Urtarril eta otsaileko hitzaldi eta tailerrak Euskal Eskola Makrobiotikoko Egoitz Garrok emanen ditu. Urtarrilaren 8an, "Osasuna eta gaixotasuna" izanen du hizpide; 15ean "Elikaduraren garrantzia gure osasuna zaintzeko eta 21ean "Gure osasuna eta psikismoa". Urtarrilaren 29an, otsailaren 5ean eta otsailaren 12an, gosari, bazkari eta janari osasuntsuak nola prestatu ikasteko saio praktikoak eginen ditu. Hitzaldi eta saio guziak 17:00etan hasiko dira Arizkunenean.

Martxoan, Nahia psikoterapia zentroak hartuko du hitzaldien ardura. Martxoaren 11n "Zaintzailea zaintzearen garrantzia" solasaldia eskainiko du. Martxoaren 18an "Familia harremanak diagnostikoaren aitzinean" eta martxoaren 25ean "Dolu-galera (heriotza, itxura fisikoa, egunerokotasuna…). Hitzaldi hauek 17:30ean hasiko dira Arizkunenean.

# ZUGARRAMURDI

GIZARTEA ➜ BITXIKERIA

## Letoniatik Infernuko errekara neguan bainatzera



UTZITAKO ARGAZKIA

Andris Snore, infernuko errekan bainu bat hartzen.

**Andris Snore Infernuko errekako putzurik sakonenean sartu zen**

TTIPI-TTAPA

Orain arte izan dugun egun hotzenean (4 zero azpitik izan baikenuen) Zugarramurdin agertu zitzaigun Letoniako gizon bat. Ideia batekin heldu omen zen: Infernuko-errekan bainatzea.

Hori zela eta, kaloria batzuk hartu omen zituen, behar den bezala bazkalduz, arno botoil oso-oso bat harturik, eta kafe eta koñak kopa batekin. Eta argazkian ikusi dezakezuen bezala, hortxe dago poz-pozik errekako putzu haundienean sarturik.

Letonian hotz haundietara jarriak omen dira, eta sinesten dugu.

### Antzerki taldea Bartzelonara

Antzerki taldea berriz hor barna partitzen zaigu, aldi huntan Bartzelonan emanaldi bat eskaintzera.

Centelles izeneko herrian sorgintza-feriak egiten dituzte urtero, eta heldu den urtekora konbidatu dute antzerki taldea. Otsailaren 14-15eko aste hondarrean ospatuko da feria, eta bertan bi emanaldi eskainiko dituzte.

### Zumarramurdiko Sorginak Frantzian

“Las brujas de Zugarramurdi” filma urtarrilaren 8an estreinatu zen Frantzian, baina aitzinetik, abenduaren 19an aurkezpen ofiziala egin zen Parisko “Cinéma Majestic Passy”n.

Pelikula ikusteaz gain, mahai inguru bat izan zen, non Alex De la Iglesia berak parte hartu zuen, eta , bertzeen artean, Zugarramurdin egindako errodajeari buruz aritu zen hizketan.

Denetara 300 konbidatu bildu ziren, horien artean Sorginen Museoko arduraduna. Bukaeran luntx bat eskaini zen, eta bertan gure herriari buruzko esku-paperak banatu zituzten.

ILBELTZAREN 25EAN

### Joseba Tapiak azken diskoa Museoko Antzokian aurkeztuko du

TTIPI-TTAPA

Joseba Tapiaren azkeneko diskaren aurkezpena eginen da ilbeltzaren 25ean Museoko Antzokian. Arratseko 7etan izanen da, sarrera 5 eurotan. Emanaldi honekin, Barnekiak izeneko erretizaldi ziklo bat abiatuko da: Otsailaren 8an (oraino konfirmatzeko) eta otsailaren 22an, Carles Belda herritarra partaide duen Bolet Còsmic izanen da (trikitixa+musikari+zeruko irudiak).













Ttipi-Ttaparekin
zure iragarkiak
eragin haundiagoa du



# LIDERRAK GURE ESKUALDEAN



eta baita azterketa egiterakoan CIESek

## Nafarroa Garaiko mendialdean

hartu duen 111 udalerrien eremuan ere

ttipi-ttapa **26.000 irakurle**

| | |
|---|---|
| D. NAVARRA | 11.000 irakurle |
| D. NOTICIAS | 9.000 irakurle |
| GARA | 7.000 irakurle |
| BERRIA | 4.000 irakurle |
| MARCA | 3.000 irakurle |
| EL PAIS | 1.000 irakurle |
| BESTE BATZUK | 8.000 irakurle |

**Sexuaren arabera**

| | |
|---|---|
| GIZONAK | %46,00 |
| EMAKUMEAK | %54,00 |

**Adinaren arabera**

| | |
|---|---|
| 14-24 URTE | %9,60 |
| 25-34 URTE | %16,90 |
| 35-44 URTE | %24,00 |
| 45-54 URTE | %17,70 |
| 55-64 URTE | %12,20 |
| + 64 URTE | %19,70 |

**Ikasketa mailaren arabera**

| | |
|---|---|
| IKASKETARIK GABE | %6,30 |
| LEHEN IKASKETAK | %15,70 |
| LANBIDE HEZIKETA | %25,40 |
| BATXILERGOA | %24,30 |
| UNIBERTSITATEA | %38,30 |

Datu iturria:
CIES 2013ko 2. neurketa

ttipi-ttapa | 605 zk.
2014.01.09

# SARA

GIZARTEA ➔ IKASTOLAREN EKITALDIAK

## Euskaraz ikasi, jostatu eta bizi nahi dutela erakutsi dute Olhaingo ikasleek



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskararen Eguna ospatu zuten Olhain ikastolako ikasleek.

### Orekaz proiektua lantzen dute gorputz heziketan

Joana GERENDIAIN

Gure hizkuntzarekiko maitasuna eta atxikimendua adierazteko, abenduaren 3a baliatu zuten Olhain ikastolako ikasleek, euskararen eguna ospatzeko.

Haurren ideietatik abiatuz arratsalde berezia antolatu zuen ikastolak: haurrek eginiko marrazkiak herrian zintzilikatu zituzten, eta herria euskararen koloreekin alaitu. Ikastolako zaharrenek asmakizun eta erran zaharrak zintzilikatu zituzten herriko xoko ezberdinetan. Eta arratsaldea bukatzeko, jokoak egin zituzten plazan.

Aurtengo proiektu pedagogikoetan azpimarratzen ahal da haurren arteko kooperazioaren inguruan eramaten den lana, haien arteko harremanak ahalik eta hoberenak izan eta ikastolako bizian aktiboagoak izateko.

Hunekin lotua, Orekaz proiektua iaz bezala aurten ere martxan eman dute ikastolan. «Gorputz heziketa lantzeko modu aktiboagoa da, eta inguruan ditugun toki naturalak gehiago erabiltzera bultzatzen duena. Hemen kooperazioak garrantzi handia du norberaren emozioak eta bertzeenak ere kontutan hartu behar baitira», ikastolatik jakinarazi dutenez.

Bertzalde, adin guztietako ikasleak nahasi eta ikasle gazte eta handien artean elkar ezagutza bultzatzen dute. Bi astetik behin, haurrak bikoteka ari dira lanean, eskulan baten inguruan. Adin ezberdinen arteko harremana bultzatzeaz gain, zailtasunean dena goxotasunean lagundua da. Handienek pozik laguntzen dituzte gazteenak eta gazteenak loriatzen dira handien arretarekin.

Aurten sagarra hautatu dute urteko gai nagusi bezala eta hunen inguruan urtean zehar zonbait ekitaldi egiten ari dira. Adibidez, azaroan Lehen mailako ikasleak Astigarragara joan dira Sagardoaren museoa bisitatzera. Euskal Herriko sagar mota guzien ezaugarriak aztertu ondotik, sagarrak bildu eta sagar jusaren ekoizteko prozesu guzia esperimentatu ahal izan dute, aspaldiko tresnak eta teknikak erabiliz (sagar biltzea, puskatzea, tinkatzea, jastatzea…).












## EZKONTZAK

**Axier Alava Zaporta** eta **Yolanda De Carlos Lazkano,** Lesaka eta Leitzakoa, abenduaren 7an Lesakan.
**Miguel Angel Lopez Los Santos** eta **Maria Ines Zuñiga Alvarez,** Donostia eta Irungoa, abenduaren 13an, Lesakan.
**Jose Mari Elizondo Mitxelena** eta **Bernarda Flores Cruz,** Sunbilla eta Bolibiakoa, abenduaren 21ean, Sunbillan.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**Argitxu Bengotxea Iriarte,** Narbartekoa, abenduaren 14an.
**Oinatz Sein Etxebeste**, Igantzikoa, abenduaren 3an.
**Eñaut Zelaieta Azkarate**, Anizkoa, azaroaren 29an.
**Eira Dominguez Ezkurra**, Leitzakoa, azaroaren 23an.
**Aitor Santxez Olariaga,** Sunbillakoa, azaroaren 25ean.
**Izadi Lasaga Agirre**, Berakoa, azaroaren 13an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*



## Justo
## URKIJO BIZKARGUENAGA

**Lesakan, 2013ko urriaren 28an, 98 urte zituela**

*Bizkaiatik Nafarrora ailegatu zinenean*
*kolore zuri gorria zeneraman odolean*
*gerra zibilaren mina bizituri azalean*
*hainbat bizipen ta istorio utzi dituzu atzean*
*ia mende batez egon zara zu gure artean*
*belarrientzat goxamen zure hitzak aditzean*
*ez genun nahi baina unea ailetu da azkenean*
*eman diguzunagatik guk zattugu bihotzean*
*Gero arte Atatxi,*

**ZURE FAMILIA**



## Jose Francisco
## SANZ SARRATEA

**Leitzan, 2013ko urtarrilaren 1ean**

**I. URTEURRENA**

*Senar ona, atta zoragarria*
*aitatxi ezin hobea eta senide paregabea.*
*Dena eman zenigulako,*
*adiorik ez, gero arte baizik.*
*Betirako gure bihotzean.*

**AHAZTEN EZ ZAITTUN ZURE FAMILIA**

## HERIOTZAK

**Pilar Irigoien Altzugarai**, Berakoa, abenduaren 14an, 89 urte.
**Fermin Jauregi Aleman**, Amaiurkoa, abenduaren 14an, 59 urte.
**Juan Andresena Etxeberria**, Oieregikoa, abenduaren 14an, 89 urte.
**Bittori Fagoaga Bereau**, Lesakakoa, abenduaren 15ean, 83 urte.
**Juan Luis Etxegarai Irazoki**, Berakoa, abenduaren 17an, 72 urte.
**Maria Santos Rios**, Beran, abenduaren 20an, 85 urte.
**Jose Mari Ballarena Agerrebere**, Erratzukoa, abenduaren 21ean, 79 urte.
**Salvador Altzugarai Telletxea**, Lesakakoa, abenduaren 21ean, 80 urte.
**Maria Manuela Dias**, Doneztebekoa, abenduaren 13an, 56 urte.
**Martin Grazenea Petrikorena *Gantxillo***, Narbartekoa, abenduaren 14an, 60 urte.
**Isabel Ferrero Igoa**, Berakoa, abenduaren 22an, 97 urte.
**Fidel Aranburu Altzugarai**, Lesakakoa, abenduaren 22an, 88 urte.
**Maritxu Prieto Aginagalde**, Berakoa, abenduaren 22an, 96 urte.
**Fernando Arregi Inda**, Elizondokoa, abenduaren 23an, 93 urte.
**Miguel Angel Altzuart Etxaide**, Arizkungoa, abenduaren 23an, 78 urte.
**Manuel Azkona Navarro**, Iruritakoa, abenduaren 23an, 88 urte.
**Salvador Yanci Prieto**, Lesaka-Berakoa, abenduaren 24an, 66 urte.
**Jose Antonio Andueza Larralde *Artza***, Lesakakoa, abenduaren 24an, 86 urte.
**Martin Miguel Otxandorena Elizalde**, Elgorriagakoa, abenduaren 25ean, 95 urte.
**Francisco Iturralde Ilarragorri**, Iruritakoa, abenduaren 26an, 73 urte.

**PILOTA ➜** ABENDUAREN 14 ETA 15EAN LESAKA ETA BERAKO PILOTALEKUETAN

# Bortzirietako eskuz binakako XIII. txapelketako finalak jokatu ziren

47 bikote aritu dira lehian 9 kategoriatan

**TTIPI-TTAPA**

Bortzirietako eskuz binakako 13. pilota txapelketako finalak jokatu ziren abenduaren 14 eta 15ean. Lehen aldiz bi egunetan eta bi herritan banatuak jokatu dituzte azken partidak, Lesakan eta Beran.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA
Txapeldunak, finalistak eta partehartzaile ttikienak, sariak jaso ondotik.

**Ttikien** kategorian, Lesakako Arkupeko Aitor Galardi eta Jon Galardi anaiek 18 eta 14 irabazi zieten Berako Gure Txokoako Andoni Latorre eta Koldo Lacar-i.

**Umeak B** kategorian, Arkupeko Eloi Sanchez eta Oihan Etxeberriak 18 eta 6 irabazi zieten Gure Txokoako Adei Villamea eta Andde Maritorenari.

**Umeak A** mailan, Gure Txokoako Unai Lluzia eta Jon Pagolak 18 eta 11 irabazi zieten Unai Alzugarai eta Andoni Telletxea taldekideei.

**Kimuak B** mailan, Irungo Iker Amiano eta Unai Amianok 18 eta 5 irabazi zieten Altxatako Andoni Otxoteko eta Rafaela Gomes-i.

**Kimuak A** mailan, Txarutako Oier Ballarenak eta Beñat Etxeberek 18-13 irabazi zieten Gure Txokoako Josetxo Sese eta Asier Telletxeari.

**Haurrak** kategorian, Arkupeko Aimar Otxoteko eta Gure Txokoako Oier Larretxeak 18 eta 10 irabazi zieten Arantzako Ekaitzako Jon Zabala eta Urruñako Iñaki Larretxeari.

**Kadete** mailan, Gure Txokoako Mikel Eltzaurdia eta Oiarpeko Ekain Etxeberria oiartzuarrak 18 eta 13 irabazi zieten Arkupeko Jonan Fagoaga eta Beñat Ordokiri.

**Gazteak B** mailan, Gure Txokoako Andoni Lazkanotegi eta Ultzamako Xabier Aizpuruak 22-7 irabazi zieten Biltokiko Oian Canabal eta Arkupeko Julen Palenzuelari.

**Gazteak A** mailan ikusi zen finalik gogorrena. Azkenean, Berako Gure Txokoan ari diren Xabi Alkasena eta Xabi Mendy lapurtarrek 22-19 irabazi zieten Gure Txokoako Ander Errandonea eta Mattin Garbisu beratarrei.

**PILOTA ➜** ABENDUAREN 14AN

# Lau terdiko txapela zazpigarrenez eskuratu du Aimar Olaizolak

22-16 irabazi zion Irujori Ogetako final bikainean

**TTIPI-TTAPA**

Olaizola II.ak 22-16 irabazi zion Irujori lau t'erdiko txapelketako finala, Gasteizko Ogetan abenduaren 14an, eta zazpigarrenez jantzi du txapela goizuetarrak. Iberoko aurrelariak estutu zuen, eskura eduki zuen garaipena, baina, beste behin, amore eman behar izan zuen. Fisikoki hobeki bukatu zuen partida Olaizola II.ak, eta hor egon zen gakoetako bat. Olaizolak berak, garaipena sakean oinarritu zuela onartu zuen, Irujoren eskuin eskua bilatuz.




ARGAZKIA: JOSE RAMON GOMEZ / DIARIO NOTICIAS
Aimar Olaizola pozik, hogeita bigarren tantua lortutakoan, Iruko gibelean duela.

**OLAZABAL AZPITXAPELDUN**

Goizuetarrak astebururuko berri ona eman zuen. Mikel Olazabal aresoarrak, aldiz, galdu egin zuen ostiralean Tolosako Beotibarren jokatu zen bigarren mailako finala. Stephane Lemuno lapurtarraren kontra 19-22 galdu zuen. 10-19 galtzen joan ondotik, 19-21era hurbiltzea lortu zuen Olazabalek, baina azken tantua Lemunok egin zuen.

**PILOTA ➜** ABENDUAREN 21EAN JOKATU ZEN 14. EDIZIOAREN FINALA IRURITAKO ARANABIAN

# Elizondok lehen aldiz irabazi du Paxaka txapelketa

## 9-7 irabazi zion Irurita E-ri

**TTIPI-TTAPA**

Elizondok irabazi du Baztan-Errekako XIV. Paxaka txapelketa. Abenduaren 21ean Iruritako Aranabian jokatutako final ikusgarrian 9-7 nagusitu zitzaion Irurita E-ri. Hirugarren posturako lehian Irurita Bk 9-7 irabazi zion Donezteberi.

Elizondoko talde txapeldunean Gorka Urtasun, Juan Mari Maia eta Jon Sansiñena aritu ziren eta Irurita E taldean Xabi Barberena, Mattin Legarrea eta Joxe Mari Salaburu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Txapeldunak kokorika eta txapeldunordeak zutik, finalari ekin aitzinetik.

Final ikusgarria eskaini zuten, txapelketako partidarik onena, ordu eta erdi ingurukoa. Iruritarrek lortu zuten lehen jokoa eta hainbat berdinketaren ondotik, Elizondok lortu zuen txapela, herri horrek eskuratzen duen lehena. Txapelak eta sariak banatu ondoren, Laxoa Elkartearen mila euroren zozketa egin zen. Zenbaki saridunа: 0371 izan zen. Urtarrilaren 4a arteko epea zuen saria biltzeko. Zenbaki hori ez balitz agertu, 0548 zenbakia da saridunа.

**AIZKORAN ETA KORRIKA ➜** ABENDUAREN 21EAN

# Doneztebeko bikotea nagusi Txikonen kontrako apustuan

## Bi minutu eskaseko aldea atera zuten

**TTIPI-TTAPA**

Desafio bikaina burutu zen abenduaren 21ean Donezteben. Giro ederrarekin harmailetan, Santi San Miguel eta Juan Telletxea garaile suertatu ziren, nahiz eta Alex Txikonek goraipatzeko lana egin. Azken orduan, bi aldeen adostasunarekin, apustuan aldaketa bat izan zen, eta horrela San Miguelek 9 km egin behar izan zituen lasterka eta Alex-ek 8 km.



ARGAZKIA: ERREKA ELKARTEA

Apustuko protagonistak eta Errekako ordezkariak, lana akitu ondotik.

Aizkorakoan, zortzi kanaerdikora, Juan Telletxeak lan dotorea egin zuen, Txikoni ederki eutsiz. 50 segundoko aldea bertzerik ez zuen ateri bizkaitarrak. Ondoren San Miguelek, bertze behin ere, bere kalitatea agerian utzi ondoren, desafioa doneztebarren aldekoa izatea lortu zuen, nahiz eta kilometro bat gehiago egin. Ordubete baino guttiago behar izan zuen bikoteak lana akitzeko (59’42”) eta bakarrik aritu zen Txikonek minutu bat eta 53 segundo gehiago.

**PILOTA**

# Baztango eskuz binakako finalak jokatu ziren abenduaren 22an

**TTIPI-TTAPA**

Txaruta elkarteak antolatutako Baztango eskuz binakako 32. pilota txapelketako finalak jokatu ziren abenduaren 22an Elizondon.

**Umeak B** mailan, Oronozko Unai Torresek eta Elizondoko Erika Urrutiak 18-13 irabazi zieten Oronozko Xanti Etxaide eta Mugairiko Miren Altxuri.

**Umeak A** mailan, Andoaingo Arrillaga eta Arrillagak 18-9 irabazi zieten Barañaingo Nazabal eta Migeltorenari.

**Kimuak B** mailan, Zigako Aimar Prim eta Iruritako Xuban Iturregik 18-9 irabazi zieten Berroetako Oihan Garaikoetxea eta Anizko Xuban Lakostari.

**Kimuak A** mailan, Zizurko Iñigo Perez eta Josu Igoak 18-10 irabazi zieten Amaiurko Mikel Ariztia eta Elizondoko Axier Ballarenari.

**Haurrak B** mailan, Andoaingo Urruzola eta Iruretagoienak 18-7 irabazi zieten Erenteriko Oiartzabal eta Etxeberriari.

**Haurrak A** mailan, Oiartzungo Oroitz Sein eta Josu Azpirozek 18-10 irabazi zieten Esteribarko Asier Maia eta Ander Beteluri.

**Kadete** mailan, azkenik, Igantziko Oihan Canabalek eta Burlatako Bidaurretak 18-14 irabazi zieten Elizondoko Aritz Merino eta Esteribarko Koldo Gil-eri.

# 2013ko kirol izen



Jesus Alacid eta Toki Ona Bortziriak saskibaloi taldea, Berako txupinazoan.

**ALACID, Jesus**

1999an, hutsetik abiatuta, Toki Ona Bortziriak saskibaloi taldea sortu eta orain 70 neska-mutiko ari dira kirol horretan. Ekainaren 8an omenaldia eskaini zioten eta San Esteban bestetako txupinazoa bota zuen, taldekideekin batera.

**AMAIUR**

Sokatira talde gaztetuak 640 eta 600 kiloko Nafarroako txapelketa irabazi ditu aurten. Lauko txapelketan ere 300 kilokoa irabazi zuen.

**APUSTUAK**

Apustu urtea izan da aurtengoa Donezteben. Martxoaren 10ean Ruben Saralegi Xabier Mindegiari nagusitu zitzaion, 10 kanaerdiko eta 2 oinbikora. Martxoaren 24an, Patxi Etxeberriak eta Oihan Larretxeak Olasagasti menperatu zuten, 20 kanaerdikora. Urtea akitzeko, abenduaren 21ean, Alex Txikonek erronka bota zien Juan Telletxea eta Santi San Miguel doneztebarrei, zortzi kanaerdiko aizkoraz moztera eta 8 km lasterka egitera. Bikotea nagusitu zen.

**ARIZTEGI, Maika**

Iturengo kirolari handiaren soka ez da eteten. Aurten, erraterako, Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa irabazi du 13. aldiz eta Lizuniagako Igoera hamaseigarrenez.



**ASTIZ, Ainhoa**

Jubenil mailako Nafarroako eskubaloi jokalari onena izendatu dute BKTko jokalaria. Maiatzaren 25ean jaso zuen saria Iruñean.

**ATLETISMOA**

Pistako atletismoan ari diren kirolari aunitzik ez dugu gurean, baina gazte mailako Euskadiko txapelketatik domina uzta polita ekarri zuten Irungo Txingudi taldean ari diren hiru bortziriarrek: Xabi Etxenike lesakarrak urrea lortu zuen pisu jaurtiketan eta 4x100 errelebeko lasterketan bertze horrenbertze lortu zuen Andoni Arriola lesakarrak. Andoni Lazkanotegi beratarrak ezustean zilarra lortu zuen jabalina jaurtiketan.

**DONEZTEBE**

Baztan-Errekako laxoa txapelketaren 34. edizioan bere hemezortzigarren txapela jantzi zuen Doneztebek, Pascual Bertiz, Koldo Legarra, Javier Bertiz eta Jokin Arraztoarekin. Doneztebeko Bear Zanan abuztuaren 3an jokatutako finalean 9-5 irabazi zion Arraioz A-ri.



Doneztebeko taldeak irabazi zuen laxoa txapelketa.

**EMAKUME PROBA**

Ibarrako taldearekin Emakume Proban txapeldun suertatu dira Estitxu Almandoz, Ainhoa Altzugarai eta Rakel Deskarga lesakarrak. Uda partean, emakume eta gizaseme arteko hainbat proba ikusi dira Areson, Goizuetan, Lesakan, Sunbillan…

**ERREMONTEA**

Lizasoren agurra eta Juanenearen debutaz gain hainbat berri utzi ditu erremonteak: Uterga kantxetara maila onean itzuli da, istripu larriaren ondotik eta 2012ko erregularrenaren saria jaso du; Etxeberria III.ak Sagardoaren txapelketa irabazi zuen; Urtasunek Eguberrietako eta Sanferminetako txapelketak irabazi eta frontoi laburrean 2012ko erremontelari onena izendatu zuten; Endika Urrutiak atzelari moduan *debutatu* du; Olazarrek Promozio txapelketa irabazi zuen eta San Miguel Nafarroako txapeldun eta buruz buruko azpitxapeldun izan da.

**ERRUGBIA**

BRTren partiden lekuko izateaz gain, Lekarozko zelaiak Euskal Herriko errugbi txapelketa hartu zuen maiatzaren 25ean. Finalean Nafarroa Behereko taldeak 12-10 irabazi zion Zuberoako Barkoxeri.

**ETXEGARAI, Fernando**

Urdazubi eta Sarako Kontrabandisten lasterketa, Sara Korrika, Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa zortzigarrenez… Beratarra ez da irabazteaz aspertzen.

**FAGOAGA, Itsaso**

Espainiako Skeet Olinpiko txapelketa zazpigarren aldiz irabazi zuen. Nafarroako txapelketa eta Espainiako Erregearen Kopa ere irabazi zituen.



**GARRO, Juan Carlos**

Lesakan jokatu zen mendi bizikletako Euskadiko XCM txapelketa eta ustekabean, 10 urte konpetiziotik kanpo eman ondotik, Berako txirrindulariak irabai zuen master-40 kategorian.

**IBARGARAI, Xabi**

Sanferminetako pala txapelketa irabazi zuen erratzuarrak Fustorekin.



**IRAZOKI, Agoitz**

Kontxako estropada irabazten duen eskualdeko lehen arraunlaria izan da lesakarra. Hondarribiarekin lortu du.



Iñaki Lizasok adio erran zion erremonteari abuztuaren 10ean.



**JAURENA, Saioa**

Getxo eta Ohorezko mailako Bizkarians taldeetan ari den Elizondoko errugbi jokalariak Espainiako selekzioarekin debuta egin du.



**JUANENEA, Aritz**

20 urterekin debuta egin du saldiastarrak erremonte profesionalean. Lehen txapela ere lortu du, Nafarroakoa, San Miguelekin bikote eginez eta Sanferminetako finalera ere iritsi zen.



**LARRALDE, Joseba**

Txirrindula utzi eta mendi lasterketetan espezializatu da beratarra. Camille Extreme gogorrean bigarren izan zen, Sarako Kontrabandisten lasterketan bezalaxe eta Nafarroako mendi lasterketa txapelketa irabazi egin zuen urriaren 26an Tafallan.

**LIZASO, Iñaki**

21 urteko ibilbide oparoaren ondotik profesionaletan azken partida jokatu zuen Doneztebeko erremontelari handiak abuztuaren 10ean. 2000ko buruz buruko txapela jantzi zuen eta lau urtez azpitxapeldun izan zen. Binaka ere zenbait txapel eskuratuak ditu, baina atzelarien joku moldea aldatzea izan da bere lorpenik handiena.

**MENDI ERRONKA**

ESAITek antolatutako Euskal Herria Mendi Erronka lehenbiziko aldiz burutu zen ekainaren 1ean Leitza eta inguruko mendietan. 500 korrikalaritik 366k lortu zuten bukatzea. Angel Arrieta (6:45.51) eta Leire Agirrezabala (8:24.08) izan ziren garaileak. Aurten ere Leitzan eginen da, maiatzaren 31n.

**MINDEGIA, Niko**

Logroñoko NaturHouse taldean sasoi bikaina egin ondotik, Asobal ligatik Hungariakora salto egin du Doneztebeko eskubaloi jokalariak. Pick Szeged taldean bikain ari da.

**NIEVE, Mikel**

Euskaltel-Euskadi taldea desagertu eta garai zail hauetan nahikoa lan izan dute txirrindulariek bere lanean segitzeko. Leitzarra izan da hobekien kokatu dena eta Sky talde handian ariko da.



**OLAIZOLA, Aimar**

Buruz buruko txapel nagusia laugarrenez jantzi du goizuetarrak, 2012an bezala finalean Irujori 22-7 irabazita. Lau terdikoa ere zazpigarren aldiz jantzi du, Irujori 22-16 irabazita.

**PERURENA, Inaxio**

300 kilokoa bizkarreratzea lortu zuen otsailaren 10ean Leitzan eta esku bakarrekin 238 kilokoa altxatu zuen urriaren 5ean Iruñean. Marka bikainak.

**TXIRRINDULARITZA**

Beteranoak bikain dabiltza errepidean. Ion Zeberio eta Patxi Meoki elizondarrak Euskal Herriko txapeldun izan dira bere kategorietan. Meoki Espainiako txapeldun ere izan zen eta Zeberiok Nafarroako Itzulia eta erlojupekoa ere irabazi zituen. Luziano Mitxelena lesakarrak ere Nafarroako erlojupeko txapelketa lortu zuen.



**TXOPERENA, Beñat**

Igantziarrak afizionatu mailan bere lehen garaipena lortu zuen Mungian, Euskadiko erlojuaren kontrako txapelketan 3. eta Espainiako errepideko txapelketan 2. Orain, profesionaletan debutatuko du Euskadiko talde kontinentalean.

**VILA, Patxi**

Txirrindularitza profesionala utzita ere ez dute ahazteko Berako txirrindulazaleek. Otsailaren 22 eta 23an omenaldia egin zioten, solasaldi, erakusketa eta bizikleta martxarekin.



Euskal Herriko errugbi txapelketa maiatzaren 25ean jokatu zen Lekarozen.

ttipi-ttapa | 605 zk.
2014.01.09

# urtarrilak 9 - 23

Informazioa bidaltzeko: **info@ttipi.net** edo **948 63 54 58**

## Ospakizunak



ELIZONDO | 2014.01.17

**San Anton Egunaren baitan zahar etxearen aldeko zozketa**

Goizean txistulariek karrikak alaituko dituzte, eta zopak dastatu eta bertsoez gozatzeko aukera izanen da. 13:00etan zahar etxearen alde zozketa eginen dute.

## Tailerra



DONEZTEBE | 2014.01.13-30

**'Hautsi tabakoarekin duzun lotura' tailerra osasun zentroan**

Erretzeari uzten laguntzeko tailerra antolatu dute Doneztebeko osasun zentroan. Urtarrilaren 13, 16, 20, 23, 27 eta 30ean izanen da eta 10erako apuntatu behar da.

## Antzerkiak



IRURITA | 2014.01.12

**'Atsoak dantzan' ikuskizuna Pikor Teatro taldearekin**

Zahar-egoitza batetik ihes egin duten bi adineko emakumeen harat honatak kontatuko dituzte 19:00etan Iruritako Damaso Zabalza Bilgunean.

## Solasaldiak

NARBARTE

***Bulling-a* hizpide**

**Urtarrilaren 9an** Guraso Elkarteak antolatuta eskolan.

ELIZONDO

**'Sexu eta ugalketa eskubideak. Nafarroako egoera' solasaldia**

**Urtarrilaren 17an** abortatzeko eskubidearen txostenaren datuak plazaratu eta sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzko legearen erreformaren informazioa emanen da, Arizkunenean 18:00etan.

**Osasuna eta elikaduraz solasaldia**

**Urtarrilaren 15ean** *Elikaduraren garrantzia gure osasuna zaintzeko* hitzaldia, 17:00etan Arizkunenean. Egoitz Garro izanen da hizlaria.

**Osasuna eta psikismoa**

**Urtarrilaren 21ean** *Gure osasuna eta psikismoa* hitzaldia Egoitz Garrorekin 17:00etan Arizkunenea Kultur Etxean.

**Atxikimenduari buruzko solasaldia**

**Urtarrilaren 8, 15 eta 22an** 0-6 urteko seme-alabetan atxikimenduari buruzko tailerra, 10:00etatik 12:00etara Osasun Etxean. Nerea Mendizabal izanen da hizlaria.

**'Baztango etorkizuna tokiko garapenetik eraikiz: herritarren artean adostutako proposamenak'**

**Urtarrilaren 18an** solasaldia izanen da Arizkunenean, 11:00etan. Jaime Izquierdo Vallinak eskainiko du hitzaldia.

ARRAIOZ

**'Zer lotura dago komunikazio modu eta heziketa moduaren artean?'**

**Urtarrilaren 21ean** Nahia psikoterapia zentruaren eskutik Arraiozko eskolan solasaldia, 16:30etik 18:00etara.

## Tailerrak

DONEZTEBE

**'Hautsi tabakoarekin duzun lotura'**

**Urtarrilaren 13, 16, 20, 23, 27 eta 30ean** Doneztebeko Osasun Zentroan, tabakoa uzten laguntzeko tailerra 12:30etik 14:30era. Izen-ematea urtarrilaren 10a baino lehen egin behar da Malerrekako Osasun Zentroetan.

BERA

**Eskalada tailerra**

**Urtarrilaren 12an** Xanti Susperregirekin 10:00etatik 13:00etara. Eguraldi onarekin Ibardingo Peña Ratan eginen da eta txarrarekin kiroldegiko rokodromoan.

## Bertsoak

ERRATZU

**Bertso afaria**

**Urtarrilaren 18an** Jon Maia, Julio Soto eta Agin Laburureki bertso afaria, 21:00etan Erratzuko elkartean. Gai jartzailea Fernando Anbustegi izanen da.

## Dokumentalak

BERA

**Mendiko dokumentala**

**Urtarrilaren 12an** *Bidaiatu eskalatzen* izenburupean dokumentala ikusgai izanen da Xanti Susperregi eta Mikel Ajuriaren eskutik, 19:00etan Beralandetan.

## Antzerkiak

IRURITA

**'Atsoak dantzan' ikuskizuna**

**Urtarrilaren 12an** Damaso Zabalza Bilgunean, 19:00etan, Pikor Teatro taldearen eskutik.

## Kontzertuak

ELIZONDO

**Mugaldekoak taldearen kontzertua**

**Urtarrilaren 26an** Arizkunenean kontzertua eskainiko du Mugaldekoak taldeak, 19:00etan.

## Inauteriak

ELGORRIAGA

### PROPOSAMENA

BERA

**VI. Santa Barbarara Igoera**

Aurten seigarren aldiz Santa Barbarara Igoera antolatu dute Beran: goizean eskalada tailerra izanen da, 14:30ean Santa Barbarara ibilaldi gidatua, 14:45ean haurrentzako lasterketak izanen dira eta 15:30ean binakako kronoigoera hasiko da. Ondotik berendua eta zozketa eginen dituzte eta 19:00etan mendiko dokumentala ikusgai izanen da Beralandetan.



**Mozorro besta**

**Urtarrilaren 17an eta 18an** inauteriak ospatuko dituzte.

## Ospakizunak

ELIZONDO

**San Anton Eguna**

**Urtarrilaren 17an** San Anton Eguna ospatuko da. Egitarauaren barne, Zahar Etxearen alde zozketa eginen dute.

## Mendi irteerak

BAZTAN

**Azpilkuetatik Alkurruntzera ateraldia**

**Urtarrilaren 12an** Azpilkuetatik Alkurruntzera ateraldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek. 08:00etan abiatuko dira.

**Beintza-Labaienera ateraldia**

**Urtarrilaren 19an** Baztango Mendigoizaleak Beintza-Labaienera joanen dira, 07:30ean abiatuta.

**Elizondotik Albara**

**Urtarrilaren 26an** Elizondotik abiatuta Albara joanen dira Baztango Mendigoizaleak. 08:00etan abiatuko dira.

BERA

**VI. Santa Barbarara igoera**

**Urtarrilaren 12an** 15:30ean hasita. Lehenagotik haurrentzako lasterketak ere izanen dira. Ondotik, berendua, zozketa eta mendiko dokumentala ere bai. Goizean, berriz, eskalada tailerra.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu:
**www.ttipi.net**
(agenda)

## ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

### Liburua




Nevadako egunak
BERNARDO ATXAGA
Pamiela, 2013

*Nevadako egunak* kronika da hasieran, eta bukaeran nobela. Bere pieza guztiak bereziak dira, baina motiboak eta pertsonaiak, beti berberak. *Obabakoak* bezain aldakorra da, eta *Soinujolearen semea* bezain trinkoa. Ez dago orrialde berdinik, ezta orrialde solterik ere. Liburuaren atmosfera nagusia biografiarena da. Bere orrialdeetan azalduz doazen pieza guztiek giza esperientzia dute abiapuntu. Egileak bere berri ematen du haietan, zer bizi izan zuen, zer pentsatu eta imajinatu zuen Estatu Batuetako Nevadan pasatutako denboran, 2007ko abuztutik 2008ko ekainera; 2007ko abuztuaren 18an iritsi zen Renora Atxaga, familia lagun hartuta hilabete batzuetako egonaldia egiteko prest. Orduan idatzi zuen Pamiela etxearekin argitaratu duen *Nevadako egunak* liburuko lehen pieza. Baina bertze pertsonaia batzuk ere hartzen ditu aintzat, hurbilekoak eta arrotzak, lehengoak eta oraingoak. Lekuek ere badute garrantzia, eta batez ere desertuak.

### Musika




Tradition 2.1
KORRONTZI
Baga-biga, 2013

Korrontzi Euskal Herriko musikaren sustraietatik sortutako taldea da eta argitaratu berri duen *Tradition 2.1* diskoa taldearen laugarren lana da, munduko hainbat tokitan grabatua. Taldea sortu zuen Agus Barandiaranek ekoitzi ditu abesti guztiak, baita koordinazio teknikoa egin ere, 2010eko abuztutik 2013ko urrira. Guztira 60 musikaritik goiti izan dira euren artea erakutsi dutenak diskoan eta 26 grabazio estudio erabili dituzte diskoaren grabaketak borobiltzeko. *Tradition 2.1* disko kosmopolita bezala aurkeztu dute, «Euskal Herriko musika tradizionala hamaika herritako musikari eta euren musikarekin nahasia». Baina denetan nagusi trikitixa da. Hamasei abesti egin dituzte, eta horietan flamenkoa fandagoarekin nahastu dute, Portugalgo fadoa porrusaldaren zaratarekin, arin-arina eta Italia, biribilketa eta Galizia, Sizilia eta kalejira, Sardinia, Zimbabwe, Madagaskar, Eskozia, Asturias, Katalunia, Frantzia...

### Internet



Nafarroako Oroimen Historikoari Buruzko Dokumentazio Funtsa
MEMORIA-OROIMENA.UNAVARRA.ES

Nafarroan 1936 eta 1975 urte bitartean, frankismoak eragindako errepresioa jasan zuten milaka pertsonen izenak biltzen dituen datu basea paratu du martxan Nafarroako Unibertsitate Publikoak *www.memoria-oroimena.unavarra.es* atarian. Nafarroako Parlamentuak 2009ko otsailaren 12an hartu zuen Nafarroako Oroimen Historikoari Buruzko Dokumentazio Funtsa izeneko proiektu hau martxan paratzeko erabakia eta 2011ko azaroaren 30ean Unibertsitatea eta Nafarroako Legebiltzarraren artean sinaturiko akordioari esker, NUPeko ikerlari talde bat osatu zuten lan hau egiteko. Guztira 60.000 dokumentu inguru digitalizatu dituzte, eta 4.500 lagun ingururi buruzko datuak bildu eta horietako 3.300enak paratu dituzte Funtsan, tartean eskualdeko hainbatenak. Weguneak hainbat bilaketa egiteko aukera ere eskaintzen du: izen-abizenen arabera, sorterriaren arabera, bizilekuaren arabera, jasandako errepresioaren arabera...

## Nire aukera



**Maider PETRIRENA**
Sunbildarra

### «Oporretan kanpora joatea gustatzen zait baina herrian egotea ere luxu bat da»

Familiarekin eta lagunekin egotea gustatzen zaio Maider Petrirenari denbora librea duenean, eta beretako asteburuetako planik ederra ere «familiarekin disfrutatzea» da. Bidaiatzea ere gustuko du eta erran digunez, «urtean behin oporretan kanpora joatea gustatzen zait». Halere, «oporretan herrian egotea ere luxu bat dela» dio. Bisitatu dituen tokien artean, Italiara egindako bidaia du gogoan: «ezkonbidaian Italian barna ibili ginen eta leku zoragarriak bisitatu genituen». Baina sorterria ere maite du eta bere irudiko, «txoko politez betetako herria da Sunbilla». Orain, berriz, hainbertze gustatzen zaizkion inauteriei begira jarria da, nahiz eta nahiago izan duen karrozan zer eginen duten sekretuan utzi: «niregatik erranen nuke, baina ez da nik bakarrik egin beharreko karroza eta sekretua kontatzen badut agian haserretuko zaizkit», adierazi digu umoretsu. Beraz, karroza desfilean ikusiko dugu Maider, baina baita inauterietako emakumeen afarian ere, hori delako besta egiteko gehien gustatzen zaion urteko eguna.

## ETXEBIZITZAK
### salgai

**ORONOZ-MUGAIRI**. Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/ 100.000 €. ☎948 585036.

ANZABAL INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan**
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

**URDAZUBI**
- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

**ELIZONDO**tik kilometro batera 120 m²ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela eta jangela (dena irekia), terraza itxia. Dena mobleztatua eta berritua. Argitsua. ☎670 410556.

**ETXALAR**. Borda bere lur eremu eta baimenekin salgai. ☎661 112154.

**LESAKA**. Albistur karrikan pisu mobleztatua salgai edo errentan emateko. Dena berritua. ☎677 734675.

**ELIZONDO**. Erabeta karrika 1eko 2. D pisua salgai. Berria. 2 logela, bainugela ederra, sukalde amerikar osoa, egongela-jangela, balkoia, trastelekua eta garajea. Kanpora ematen duena. Aukerako prezioa. ☎629 212439.

# MERKATU TTIKIA

## 948 63 54 58

**info@ttipi.net** edo **www.ttipi.net**

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **3008 0080 56 0703304329** kontuan

**TTIPI-TTAPAk ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik**

**ARRAIOZ.** Etxe unifamiliarra errentan emateko edo saltzeko. Lur eremuarekin. ☎609 973306.

## ETXEBIZITZAK
### erosteko

**ELIZONDO**. Pareja gaztea pisu bila gabiltza. ☎686 496923.

## ETXEBIZITZAK
### errentan emateko

**BERA**. Agerra auzoan pisu mobleztatua errentan emateko. Hiru logela, kalefakzioa eta igogailua. ☎659 963960.

**LESAKA**. Guztiz mobleztatua eta ekipatua dagoen duplexa errentan emateko. 1 edo 2 lagunentzako aproposa. Inguru polita eta lasaia. Berogailuarekin. Abenduaren 15etik aitzinera sartzeko prest. ☎658 943702.

**LESAKA**. Apartamentu berria errentan emateko, 2 lagunendako. ☎675 714360.

**ARRAIOZ**. Familia bakarreko etxea errentan emateko edo saltzeko. Lur eremuarekin. ☎609 973306.

**BERA**. Altzateko Plazan pisua errentan emateko. Igogailuarekin, 3 logela, egongela, sukalde zabala eta berogailua. Guztiz ekipatua. ☎665 716126.

## ETXEBIZITZAK
### errentan hartzeko

**LESAKA-BIDASOA**. Pisu edo etxe ttiki bat lur pixka batekin errentan hartuko nuke. Hilabetean 350-400 euro ordaintzeko prest. ☎636 777478 (Deitu 16:00etatik aitzinera).

**BERA**. Lur eremua duen etxe, borda edo baserria hartuko genuke errentan. ☎628 090498.

**DONEZTEBE**. Bertako a batek pisua errentan hartuko genuke, igogailuduna edo lehenengo solairuan. ☎689 441718.

**ELIZONDO**. Pareja gaztea pisu bila. 686 496923.

## ETXEBIZITZAK
### konpartitu

**BERA**. Neska batek bertze neska bat behar du Berako auzo lasai batean pisua konpartitzeko. Neska arduratsua eta ahal bada erretzailea ez dena. ☎662 585965.

## GARAJEAK/LOKALAK
### salgai

**LESAKA**. Lur azpiko garaje itxia salgai Eltzeta plazan. ☎646 774117.

## GARAJEAK/LOKALAK
### errentan emateko

**LESAKA**. Lokal bat errentan eman edo saltzeko Eltzeta karrikan. Etxebizitza egiteko aukerarekin. 120 m². Aukera ona. ☎659 489140.

## GARAJEAK/LOKALAK
### errentan hartzeko

**LESAKA**. 50 m² inguruko lokal bat errentan hartzeko behar da. ☎948 637050 (deitu bulego orduetan).

## LANA
### eskariak

Doneztebeko **emakumezko** batek orduka haurrak zainduko lituzke Malerreka aldean. Ordutegiak berdin dio. ☎619 913375.

Zonaldeko enpresa ttikietan esperientziadun **gizonezkoa**, kotxe karneta eta karretillero karnetaduna lanerako prest. ☎632 202854.

**ESKUALDEA**. Emakume esperientziaduna interna bezala lanean ariko litzateke. ☎619 013983.

## LANA
### eskaintzak

**SARA**. Urtxola jatetxean esperientzia duen sukaldaria behar da. ☎686 561525.

# BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(abenduaren 13tik 20ra bitarteko prezioak)



## ZERRIKIA

**Zerrikumea**
(19 kilo): 49 € (=)

**Zerri gizena**
1,290 € kiloa. (=)

**Zerramak:**
0,730€ Kg/bizirik. (-0,030)



## BEHIKIA

**Aretze gizenak:**

| **Idixkoak:** | **€/kg. Kanal** |
|---|---|
| **Extra** | 4,31 |
| **1.koa** | 4,05 |
| **2.koa** | 3,90 |
| **Urruxak:** | **€/kg. Kanal** |
| **Extra** | 4,37 |
| **1.koa** | 4,09 |
| **2.koa** | 3,95 |

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**
urruxak 140,00
idixkoak 210,00

**Aretze nabarrak:**
urruxak 140,00
idixkoak 180,00

**Zaldikoak:** €/k
Sortuberriak: 2,70/2,92
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

**Bildotsak:** €/k
6-8 kilokoak: 7,90/8,10
8-10 kilokoak: 6,10/6,80

## MOTORRAK

### saldu

**Karabana** Fendt tfb 470 salgai. Ongi zaindua eta gutxi erabilia. 6.500 euro. ☎657 609811/634 800064.

**Patrola** salgai, 6 zilindro, turbo diesela, top line 2, luzea. ☎948 637327.

**Gas gas EC 250 motorra** salgai, 2007. urtekoa. ☎661 333552.



Comansa HT 2692 **grua** salgai. 1994.urtekoa. 26 m-ko pluma, 21 m-ko altuera pluma azpian, 800 kiloko potentzia puntan, 2000 kiloko potentzia maximoa. 2005 urteko kaxa elektrikoa. Konpromisorik gabe ikus daiteke. ☎608 174510.



## ANIMALIAK

### oparitzeko

**Zakurkume** beltza salgai, bi hilabete pasa. Arratoi zakur nahasketa. ☎620 401461.

**Zakurkumeak** oparitzen dira. Euskal artzain zakur nahasketa. Hilabete terdikoak. ☎607 776559 (Cristina).

## ANIMALIAK

### salgai

Sasiko **15 ardi** eder salgai, baita **2 ahari** ere. ☎655 706074 / 655 743991.



**Betizu mantsoak** salgai, edozein belaso edo mendietarako egokiak. ☎655 706073.



**22 ardi** (abenduan uma - tzeko) eta **2 ahari** salgai. ☎662 139624.

**LESAKA**. Hiru poni salgai, merke. ☎646 722868.

## ANIMALIAK

### salerosketak

**Ahotza salgai**: garagarra, oloa, garia. Balota ttipiak, 4 eta 6 filez. ☎607 457004.



## DENETARIK

### salerosketak

**SUNBILLA**. Ardiei ilea mozteko eskiladora elektrikoa salgai, behin bakarrik erabilia. ☎948 146209.

**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehetua.☎659 867287/ 699 461394.

**ORONOZ.** Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramanen da. ☎676 242520.





**BERA**. Amazon kindle 4 - 2013 e-bookak salgai, berriak estreinatu gabeak. 66 eurotan salgai, Olentzerotako edo Erregeetarako primerako oparia. ☎622 203339.

**Bertako haritza, haritz amerikanoa eta gerezi plantak** salgai. ☎948 450888 (eguerdi eta arratsetan).

Baduzu **piano** zaharren bat etxean? Erosiko nuke. ☎622 572158.

**Ostatuko egurrezko** mahaiak, aulkiak, tabureteak eta bankuak salgai. Baita terrazarako aluminiozko mahaiak eta aulkiak ere. ☎670 410556.

**Taka taka** eta **gurpildun aulkia** salgai. Aulkia aluminiozkoa da eta gurpilak desmuntatu litezke. ☎633 045524.





**Ohe artikulatua** salgai. ☎948 637159.



**LEITZA.** Beheko sua salgai. Konbustio bikoitza. Hogar Palazetti 2005 Economobloco frontal 66. Gutxi erabilia. ☎687 802488/670 780426.



**Trikitixa** erosiko nuke. ☎699 509003.



# urtebetetzeak

Argazki soila: **4€**; bikoitza: **8€**

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekea; 4) www.ttipi.net bitartez



Oizko **Irati Ariztegi Tabernak** urtarrilaren 16an urtea beteko du. Muxu potoloak gure txikienari etxekoen partetik!



Sunbillako **Oihane Lazkano Altzurik** abenduaren 22an 4 urte bete ditu. Zorionak Leitza eta Sunbillako familiaren partetik, bereziki anaia Julenen partetik.



**Joxe Mari** eta **Garbiñe** gure attatto eta amattok urteak bete dituzte abenduaren 7an eta 20an. Zorionak eta muxu bana! Lide eta Martxel.



**Alaia Telletxea Buldain** Leitzako neska politak 3 urte bete ditu abenduaren 25ean. Zorionak Ezkurrako osaba-izebak, atautxi-amatxi, Janire eta Aimar.



Leitzako **Alaia Telletxea Buldainek** abenduaren 25ean 3 urte bete ditu. Muxutxoak **Alaia** Mari Jaia!



Sunbillako **Nahia Bertiz Babaze** gure etxeko sorginak 4 urte bete ditu abenduaren 14an. Zorionak attatto, amatxo, Aimar eta Sunbillako eta Urrozko familia guztiaren partetik. Muxu potolo bat!



Arantzako **Iraia Arotzenak** 2 urte bete ditu abenduaren 21ean. Aunitz urtez etxekoen partetik eta muxu haundi bat.



Arantzako **Iker Arotzenak** 2 urte bete ditu abenduaren 21ean. Aunitz urtez etxekoen partetik eta muxu haundi bat.



Labaiengo **Liernik** abenduaren 27an 15 urte bete ditu. Zorionak gurasoen partetik.



**Jon Berho Gonik** urteak beteko ditu urtarrilaren 14an. Bere lagun maiteen partetik zorionak eta muxu bat. Txarru, Fosti eta Txispin partetik ere bai.



**Nahia Bertiz Babazek** 4 urte bete ditu abenduaren 14an. Zorionak eta muxu pottolo bat gure iloba polit, alai eta langileari Joseba eta Izarneren partetik.



Zorionak! Leitzako **Markel Martinez Sagastibeltzak** abenduaren 9an 5 urte bete ditu. Urte askoz eta txokolatezko muxuak familia guztiaren partetik. Aupa artista!



Barañaingo **Ainhoa** eta **Amaiak** abenduaren 11n 12 urte bete dituzte. Zorionak familiaren partetik.



Arantzako **Suharri eta Oskitz Madariaga Otegik** eta beraien amatxok urteak bete dituzte abenduaren 29an. Zorionak attatto eta Araitzen partetik.



Arantzako **Suharri eta Oskitz Madariaga Otegik** eta beraien amatxok urteak bete dituzte abenduaren 29an. Zorionak Alazne eta Beñaten partetik.



**Koldo Lacar Pacheco** 7 urte beteko dituzu eta pastel bat eta txanpaina nahi ditugu merendatzeko. Zorionak txapeldun! Berako familia.



Berako **Jon Iparagirre Iriartek** 14 urte bete ditu abenduaren 28an. Zorionak familia guztiaren partetik.



USAko Elko-Nevadako **Michele Igoak** 19 urte bete ditu abenduaren 27an. Zorionak Lesakako familiaren partetik. Muxu haundi bat.



**Maddi Hoyos Iguzkiagirre** lesakarrak 5 urte beteko ditu urtarrilaren 12an. Zorionak mattia! Ongi ospatu bost urteak!!! Muxu haundi haundi bat etxekoen partetik.



Leitzako **Saioa** eta **Iera Buldain Alduntzinek** 5 urte bete dituzte urtarrilaren 7an. Zorionak eta txokomarrubizko muxutxoak familia guztiaren partetik eta berexiki Naroa eta Uxueren partetik.



Aranoko **Iraia Salaberria Narbartek** 5 urte bete ditu abenduaren 30ean. Zorionak eta mila musu etxekoen partetik.
*Eguberriak datoz konturatu gabe, eta zure urtemuga Iraia aldeik-alde, bost urteko neskatxa arki egina zaude, eskolan ta kalian zabiltza dotore, zure bixipoxakin txoratutzen gaude.*




**Mikel San Sebastian Gaztelumendik** urteak beteko ditu urtarrilaren 11n. Aurten berriz ere urrun egonen zara, baina bihotzez oso hurbil. Egun berexia dugu, ia tantaz tanta urte hau zoriontsuagoa izaten den denontzat. Besarkada handi bat familia guztien partetik. Ez ahaztu maite zaituztegula eta etxean behar zaituztegula.



Sunbillako amatxi **Bittori Ibarra Agestak** urtarrrilaren 16an 87 urte beteko ditu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik eta berexiki bere biloba ttikien partetik. Berendu goxo-goxoa prestatu denentzat. Muxuak.



Sunbillako **Garaine** eta **Iraide Iriarte Petrirena** brujita hauek urtarrilaren 19an 5 urte beteko dituzte. Aunitz urtez Berako eta Sunbillako osaba-izeba, lehengusu-lehengusina eta amatxi Bittoriren partetik. Berendu goxo-goxoa prestatu denentzat. Muxuak.



Sunbillako **Garaine** eta **Iraide Iriarte Petrirena** gure etxeko printzesitek jada 5 urte beteko dituzte urtarrilaren 19an. Aunitz urtez amatxi Marikruz, atautxi Pako, izeba Nerea, Ibai lehengusua eta gurasoen partetik. Ongi pasatu urtebetetze eguna. Afari goxo-goxoa prestatu. Muxuak.



**Lorea Saldias Makazagak** 4 urte bete ditu abenduaren 31n. Zorionak txapelduna Iturengo familiaren partetik. Muxu haundi bat.



Amatxi **Mari Joxek** urteak bete ditu. Zorionak Orti, Lexuri, Elorri, Aiert, Mikel, Beñat eta Nahia biloben partetik. Muxuak!!!



Lesakako **Estitxu Arozenak** urteak beteko ditu urtarrilaren 7an. Muxu haundi bat familia osoaren eta berexiki Jare alabaren partetik. Muxu haundi bat amatxo!!!







Birziklatu
Ontziek bizitza luzea dute
Kartoizko ontziak, papera, egunkariak, aldizkariak.
Plastikozko ontziak, latak, brikak.
Beirazko botilak, flaskoak, poteak.
Birziklatu
Uste ez baduzu ere, birziklatzeari esker ontziek bizi luzea dute. Baliteke zure seme-alaben bizikletan eraldatuta aurkitzea, zure jantzi polar kuttunean, irakurriko duzun hurrengo liburuan edota ureztontzi batean... Zeren, manera batera edo bertzera, birziklatzeak bizitza dakar. Eta zure laguntzarekin, denok zainduko dugu gure ingurumena.
ECOEMBES
SEPARAR PARA RECICLAR


ttipi-ttapa-rekin
AURREZTU
BULEGOKO
materialetan
500
bisita txartel
8,5x5,5 cm
70€
1.000
faktura orri
93€
Koloretan | Diseinua barne | Inprenta barne
Garraioa barne | BEZa barne | Epea: 10 lan egun
Koskontako bidea, 07 - 1. | LESAKA | 948 635 458
kulturkari@ttipi.net | www.kulturkari.com | www.ttipi.net